



**UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO /  
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO  
PREBENTZIO ZERBITZUAREN  
MEMORIA  
2011**

## AURKIBIDEA

	<b>Or.</b>
<b>0.- SARRERA</b>	<b>3</b>
<b>1.- OSASUN ARLOA</b>	<b>6</b>
<b>1.1.- OSASUN AZTERKETAK</b>	<b>7</b>
1.1.1. SARTU AURREKO AZTERKETAK.	
1.1.2. AZTERKETA ESPEZIFIKOAK.	
1.1.3. ABEEen ONDOREN LANERA ITZULTZEKO AZTERKETAK.	
1.1.4. PROBA ESPEZIFIKOAK.	
1.1.5. ALDIZKAKO AZTERKETAK.	
.- UPV/EHU (kopuruak guztira)	10
.- Arabako Campusa	16
.- Gipuzkoako Campusa	22
.- Bizkaiko Campusa	30
<b>1.2.- ASISTENTZIA JARDUERA</b>	<b>39</b>
1.2.1. ARABAKO CAMPUSA.	40
1.2.2. GIPUZKOAKO CAMPUSA.	41
1.2.3. BIZKAIKO CAMPUSA.	42
<b>1.3.- OHIKO GAIXOTZE TASA</b>	<b>43</b>
<b>1.4.- LANEKO ISTRIPUAK</b>	<b>49</b>
<b>1.5.- LANEKO GAIXOTASUNAK</b>	<b>55</b>
<b>1.6.- HERIOTZA TASA</b>	<b>56</b>
<b>1.7.- JARDUKETA PROGRAMA</b>	<b>58</b>
1.7.1. TXERTAKETA KANPAINAK.	59
1.7.2. LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA.	60
1.7.3. EPIDEMIOLOGIA ETA OSASUN PUBLIKOA.	62
1.7.4. PSIKOSOZIOLOGIA.	62
<b>2.- ARLO TEKNIKOA</b>	<b>63</b>
<b>2.1.- PREBENTZIO JARDUERAK ANTOLATZEKO MODALITATEA</b>	<b>64</b>
<b>2.2.- NABARMENDU BEHARREKO 2011ko JARDUERAK</b>	<b>64</b>
- ARABAKO CAMPUSA	70
- GIPUZKOAKO CAMPUSA	76
- BIZKAIKO CAMPUSA	81
<b>2.3.- INGURUMEN KUDEAKETA</b>	<b>85</b>
<b>3.- PRESTAKUNTZA</b>	<b>89</b>
<b>4.- ERANSKINAK</b>	<b>92</b>

0.

# SARRERA

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Prebentzio Zerbitzuak memoria hau aurkeztu du. Bertan, bere zeregin espezifikuari dagozkion jardueren berri eman du.

Testuak ezarritako araei jarraitzen die lan absentismoarekin eta horren diagnostikoarekin zerikusia duten zifrak aurkezteko.

Memoria honek 2011ko joerak ikustea ahalbidetuko digu, arazoan fokua edo kausak agerian utziz, ondoren horien inguruko ikerketak egin ahal izateko.

Memoria honekin Prebentzio Zerbitzuaren Araudiko 5. atalean, 15. artikuluan, jasotako lege eskakizunak bete ditugu. Araudi horren arabera, UPV/EHUK Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 39. artikuluan 2. ataleko d) paragrafoan aipatzen den memoria eta Prebentzio Zerbitzuaren urteko programazioa egin behar du urtero, eta lan eta osasun arloko agintarien eta segurtasun eta osasun batzordearen esku jarri beharko du.

Memoria hau dokumentazioa izango da, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean (31/1995) eta Prebentzio Zerbitzuen Araudian (39/1997 ED) ezarritakoari dagokionez.

## **PREBENTZIO ZERBITZUAREN OSAERA**

Prebentzio Zerbitzuko burua:	<b>Iñigo Apellaniz González</b>
Administrari laguntzailea:	<b>María Luisa Urruela Vallejo</b>
Osasun Arloko arduraduna:	<b>Iñaki Uruburu Irazabal</b>
Arlo Teknikoko arduraduna:	<b>Ana Escobal González</b>

**Osasun Arloa:** Hiru Oinarrizko Osasun Unitate (OOU) barne hartzen ditu.

---

### ***Arabako Campuseko OOU***

Marina Aguayo Angulo (Laneko medikua)  
Agustín García López de Arregui (Enpresako EUD)

### ***Gipuzkoako Campuseko OOU***

M<sup>a</sup> Jose González Kareaga (Laneko medikua)  
Amaia Odriozola Uranga (Enpresako EUD)

### ***Bizkaiko Campuseko OOU***

Iñaki Uruburu Irazabal (Laneko medikua)  
Miren Muxika Zubillaga (Enpresako EUD)

## **Arlo Teknikoa:**

---

Prebentzio teknikariak:

- .- Cesar Sáiz Martínez (Arabako C.)
- .- Luis Escribano Sardón (Gipuzkoako C.)
- .- Roxana Avilés Lizama (Bizkaiko C.)
- .- M<sup>a</sup> Elena Ramos Alvarez (Bizkaiko C.)

Ingurumen kudeaketarako teknikaria:

- .- Juan M<sup>a</sup> Apaolaza Estensoro

**LANGILEAK: IKASTEGIEN ARABERAKO BANAKETA: (2011ko abendua)**

	EME	KAT	TIT	BIT	IK	AZP	GUZTIRA
ENPRESA IKASK. UE	0	0	10	0	21	8	<b>39</b>
IRAKASLEEN UE	0	5	35	0	42	13	<b>95</b>
INGENIARITZAKO UE	0	7	56	1	56	25	<b>145</b>
GIZARTE LANG. UE	0	0	6	0	21	6	<b>33</b>
FARMAZIA F.	0	20	59	0	125	41	<b>245</b>
LETREN F.	1	37	120	0	176	28	<b>362</b>
JFKZF	0	0	2	0	52	14	<b>68</b>
ZERBITZU ZENTRALAK	0	0	0	0	0	95	<b>95</b>
<b>ARABAN GUZTIRA</b>	<b>1</b>	<b>69</b>	<b>288</b>	<b>1</b>	<b>493</b>	<b>230</b>	<b>1.082</b>
ERIZAINZAKO UE	0	0	18	0	23	13	<b>54</b>
KIMIKA F.	0	23	39	0	147	27	<b>236</b>
IRAKASLEEN UE	0	4	43	0	40	13	<b>100</b>
ARKITEKTURAKO GET	0	5	22	1	91	14	<b>133</b>
ENPRESA IKASK. UE	1	5	32	0	16	16	<b>70</b>
Eibarko IITUE	0	0	24	0	16	15	<b>55</b>
UE POLITEKNIKOA	0	11	54	0	114	32	<b>211</b>
ZUZENBIDE F.	1	35	29	0	94	40	<b>199</b>
FIL. ETA HEZK. Z. F.	2	16	46	0	89	26	<b>179</b>
PSIKOLOGIA F.	0	13	33	0	79	20	<b>145</b>
INFORMATIKA F.	0	10	49	1	93	22	<b>175</b>
ZERBITZU ZENTRALAK	0	0	0	0	0	137	<b>137</b>
<b>GIPIZKOAN GUZTIRA</b>	<b>4</b>	<b>122</b>	<b>389</b>	<b>2</b>	<b>802</b>	<b>375</b>	<b>1.694</b>
ARTE EDERREN F.	0	8	82	0	72	39	<b>201</b>
EK. ETA ENP. ZIENTZ. F.	0	39	152	0	131	65	<b>387</b>
GIZ. ETA KOM. Z. F.	0	35	91	0	182	62	<b>370</b>
IRAKASLEEN UE	0	4	76	0	68	20	<b>168</b>
NAUTIKA ETA ITS. MAK. GET	0	0	22	2	13	17	<b>54</b>
INGENIARITZA GET	0	43	130	1	259	81	<b>514</b>
ERIZAINZAKO UE	0	5	23	1	21	12	<b>62</b>
ENPRESA IKASK. UE	0	9	40	0	27	19	<b>95</b>
IITUE	0	7	72	0	75	32	<b>186</b>
MEATZEEN ITUE	0	0	22	0	47	16	<b>85</b>
LAN HARREMANEN UE	0	1	30	1	22	13	<b>67</b>
ZTF	4	129	155	0	410	98	<b>796</b>
MEDIK. ETA ODONT. F.	2	42	131	1	520	91	<b>787</b>
ZERBITZU ZENTRALAK	0	0	0	0	4	704	<b>708</b>
<b>BIZKAIAN GUZTIRA</b>	<b>6</b>	<b>322</b>	<b>1.026</b>	<b>6</b>	<b>1.851</b>	<b>1.269</b>	<b>4.480</b>
<b>UPV/EHU<sub>n</sub> GUZTIRA</b>	<b>11</b>	<b>513</b>	<b>1.703</b>	<b>9</b>	<b>3.146</b>	<b>1.874</b>	<b>7.256</b>

EME: emerituak, KAT: katedradunak, TIT: titularrak, IK: irakasle kontratatuak, AZP: administrazio eta zerbitzuetako langileak.

1.


# OSASUN ARLOA

## 1.1.- OSASUN AZTERKETAK

### 1.1.1.- SARTU AURREKO AZTERKETAK.

Unibertsitatean sartu diren langileen artean, 159 azterketa egin ditugu, honela banatuta:

ARABA:	GUZTIRA: 27
IITUE	2
FARMAZIA F.	7
LETREN F.	10
ERREKTOREORDETZA	4
ENPRESA IKASKETEN UE	2
GIZARTE LANGINTZAKO UE	2
GIPUZKOA:	GUZTIRA: 13
KIMIKA F.	4
ERREKTOREORDETZA	6
FILOSOFIA ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN F.	1
ERIZAINZAKO UE-MEDIKUNTZA	1
ZUZENBIDE F.	1
BIZKAIA:	GUZTIRA: 119
EKONOMIA ETA ENPRESA ZIENTZIEN F.	5
ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA F.	22
GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN F.	3
MEDIKUNTZA ETA ODONTOLOGIA F.	20
ARTE EDERREN F.	2
ZERBITZU ZENTRALAK	47
IRAKASLEEN UE	2
IITUE	2
INGENIARITZA GET	10
NAUTIKA ETA ITSASONTZI MAKINERIA GET	1
ERIZAINZAKO UE	1
ENPRESA IKASKETEN UE	1
MEATZEEN ETA HERRI LANEN ING. TEK. UE	2
ZUZENBIDE F.- BIZKAIKO ORDEZKARITZA	1



### 1.1.2.- AZTERKETA ESPEZIFIKOAK.

Hainbat azterketa espezifiko egiten ditugu, arrazoiak hauek direla medio: kapsuletan sartu gabeko materialarekin (10) lan egiteko 3. mailako instalazio erradiaktiboen manipulazioa eta azterketa, arrisku biologikoak (23) (amorreria barne), datuak ikusteko pantailekin lan egitea (1.160), gas toxikoen ihesagatiko azterketa espezifikoak (2) eta kargen eskuzko manipulazioa (2). Kopuruak datu orokorretan sartuta daude.

### 1.1.3.- ABEen ONDOREN LANERA ITZULTZEKO AZTERKETAK.

ABE aldi luzeen ondoren (90 egun baino gehiago) lanera itzultzeko 10 azterketa egin ditugu.

Mota honetako osasun azterketak aipatutako laneko baja egoera dauden pertsona guztiei eskaintzen dizkiegu, berriro lanean hasten direnean.

Azterketaren helburua langilea ABE aldiaren ondoren lan egiteko moduan dagoela egiaztatzea eta baja lanak eragin duela baztertzea da.

### 1.1.4.- PROBA ESPEZIFIKOAK.

- 49 Profil ferrikoa
- 41 H. tiroideoak
- 18 Serologia birikoa



### **1.1.5.- ALDIZKAKO AZTERKETAK.**

- .- UPV/EHU (KOPURUAK GUZTIRA).
- .- ARABAKO CAMPUSA.
- .- GIPUZKOAKO CAMPUSA.
- .- BIZKAIKO CAMPUSA.

## **1.1.5.- ALDIZKAKO AZTERKETAK.**

**.- UPV/EHU (GUZTIRA).**

Azterketa medikoek hiru atal barne hartzen dituzte:

- Historia klinikoa
- Miaketa fisikoa
- Proba osagarriak

Azken atal horretan laborategiko datuak eta beste zenbait proba tekniko sartzen dira, esaterako: EKG, audiometriak edo ikusmen kontrolak.


2011. urtean, 1.941 pertsonak (UPV/EHUko langileen % 26,8k) hartu dute parte UPV/EHUko langile guztien esku jarritako mediku azterketa arrunten programan.

Datuak aztertu ondoren, parte-hartze handiena izan dutenak eta osasun azterketa egiteko interes handiena agertu dutenak AZPko langileak direla baieztatu dezakegu (% 38). Dena den, irakaskuntza estamentuetako kopurua ere areagotu egin da (IK: % 15,9; TIT: % 32,6; eta KAT: % 32,8).


Eskuratutako datuetan honako arazo hauek ikus daitezke:

- .- Osasun azterketa egitera joan diren pertsonen % 40,8k gehiegizko pisua dute (25 baino gehiagoko gorputz masaren indizea).
- .- % 5,8k arteria hipertentsioa dute.
- .- % 16 erretzaileak dira eta % 20,5 erretzaile ohiak.
- .- % 3,2k anomalia elektrokardiografikoren bat dute.
- .- % 9,4k arazoren bat izan dute espirometrian, buxadura patroia, murrizketa patroia edo patroia mistoa dutelako.
- .- % 20,3k entzumen mugatua dute gutxienez belarri batean.
- .- % 41,1ek oftalmologorengana joan behar dute, beren ikusmen urritasuna zuzentzeko.
- .- Hiperlipemiak dira arazo ohikoenak. 220 mg/dl-tik gorako guztizko kolesterolak altutzat hartuta, % 20,4k kolesterol altua dute, eta % 1,3k triglizerido altuak.


### UPV/EHUko ALDIKAZKO MEDIKU AZTERKETAK




### ARABAKO CAMPUSEKO ALDIZKAKO MEDIKU AZTERKETAK



### GIPUZKOAKO CAMPUSEKO ALDIZKAKO MEDIKU AZTERKETAK



### BIZKAIKO CAMPUSEKO ALDIZKAKO MEDIKU AZTERKETAK




**ALDIZKAKO MEDIKU AZTERKETAK**

	<b>KAT+EME</b>	<b>TIT</b>	<b>IK</b>	<b>AZP</b>	<b>GUZTIRA</b>
Irakasleen UE	2	14	9	2	27
Ingeniaritzako UE	0	19	17	16	52
Gizarte Langintzako UE	0	0	5	6	11
Farmazia F.	4	16	17	19	56
Letren F.	6	30	20	8	64
Enpresa Ikasketen UE	0	0	6	4	10
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien F.	0	2	10	6	18
ZERBITZU ZENTRALAK	0	0	2	40	42
<b>ARABAN GUZTIRA</b>	<b>12</b>	<b>81</b>	<b>86</b>	<b>101</b>	<b>280</b>
Kimika F.	12	18	19	16	65
Irakasleen UE	1	12	6	8	27
Arkitekturako GET	0	1	4	9	14
Erizaintzako UE	0	1	3	11	15
Enpresa Ikasketen UE	5	20	5	7	37
Eibarko IITUE	0	10	8	5	23
UE Politeknikoa	5	24	32	21	82
Zuzenbide F.	14	13	10	13	50
Filosofia eta Hezkuntza Zientzien F.	5	12	12	12	41
Psikologia F.	5	19	10	12	46
Informatika F.	7	34	33	10	84
ZERBITZU ZENTRALAK	0	0	0	69	69
<b>GIPIZKOAN GUZTIRA</b>	<b>54</b>	<b>164</b>	<b>142</b>	<b>193</b>	<b>553</b>
Arte Ederren F.	3	18	5	14	40
Ekonomia eta Enpresa Zientzien F.	11	43	14	26	94
Gizarte eta Komunikazio Zientzien F.	9	24	33	23	89
Irakasleen UE	1	17	6	5	29
Nautika eta Itsasontzi Makineria GET	0	3	3	7	13
Ingeniaritza GET	19	53	67	26	165
Erizaintzako UE	0	3	1	4	8
Enpresa Ikasketen UE	1	18	4	4	27
IITUE	2	27	18	12	59
Meatzen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko UE	0	7	6	4	17
Lan Harremanen UE	0	8	1	7	16
Zientzia eta Teknologia F.	51	73	101	25	250
Medik. eta Odont. F.	9	16	14	17	56
ZERBITZU ZENTRALAK	0	0	0	245	245
<b>BIZKAIAN GUZTIRA</b>	<b>106</b>	<b>310</b>	<b>273</b>	<b>419</b>	<b>1.108</b>
<b>UPV/EHU<sub>n</sub> GUZTIRA</b>	<b>172</b>	<b>555</b>	<b>501</b>	<b>713</b>	<b>1.941</b>

## ALDIZKAKO MEDIKU AZTERKETAK (2011)

UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA




## **1.1.5.- ALDIZKAKO AZTERKETAK.**


### **.- ARABAKO CAMPUSA.**



### ALDIZKAKO MEDIKU AZTERKETAK (2011) ARABAKO CAMPUSA




### ALDIZKAKO MEDIKU AZTERKETAK (2011) LETREN F.




### ALDIZKAKO MEDIKU AZTERKETAK (2011)

FARMAZIA F.




### ALDIZKAKO MEDIKU AZTERKETAK (2011)


IRAKASLEEN UE



### ALDIZKAKO MEDIKU AZTERKETAK (2011) INGENIARITZAKO UE




### ALDIZKAKO AZTERKETA MEDIKUAK (2011) GIZARTE LANGINTZAKO UE




## ALDIZKAKO MEDIKU AZTERKETAK (2011)

Enpresa Ikasketen EU




## ALDIZKAKO MEDIKU AZTERKETAK (2011)

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien F.



**ALDIZKAKO MEDIKU  
AZTERKETAK (2011)  
ARABAKO CAMPUSEKO ERREKTOREORDETZAKO  
AZPko LANGILEAK**




■ Medikuaren errezetarekin ■ Medikuaren errezetarik gabe


## **1.1.5.- ALDIZKAKO AZTERKETAK.**

### **.- GIPUZKOAKO CAMPUSA.**


### ALDIZKAKO MEDIKU AZTERKETAK (2011) GIPUZKOAKO CAMPUSA




### ALDIZKAKO MEDIKU AZTERKETAK (2011) ARKITEKTURAKO GET



### ALDIZKAKO MEDIKU AZTERKETAK (2011) ZUZENBIDE F.




### ALDIZKAKO MEDIKU AZTERKETAK (2011) INFORMATIKA F.






## ALDIZKAKO MEDIKU AZTERKETAK (2011)

ENPRESA IKASKETEN UE




## ALDIZKAKO MEDIKU AZTERKETAK (2011)


FILOSOFIA ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN F.




### ALDIZKAKO MEDIKU AZTERKETAK (2011) PSIKOLOGIA F.




### ALDIZKAKO MEDIKU AZTERKETAK (2011) KIMIKA F.




### ALDIZKAKO MEDIKU AZTERKETAK (2011) UE POLITEKNIKOA




### ALDIZKAKO MEDIKU AZTERKETAK (2011) IRAKASLEEN UE




### ALDIZKAKO MEDIKU AZTERKETAK (2011) EIBARKO IITUE



### ALDIZKAKO MEDIKU AZTERKETAK (2011) ERIZAINZAKO UE



**ALDIZKAKO MEDIKU  
AZTERKETAK (2011)  
GIPUZKOAKO CAMPUSEKO  
ERREKTOREORDETZAKO AZPko LANGILEAK**




- Medikuaren errezetarekin
- Medikuaren errezetarik gabe


## **1.1.5.- ALDIZKAKO AZTERKETAK.**

### **.- BIZKAIKO CAMPUSA.**


### ALDIZKAKO MEDIKU AZTERKETAK (2011) BIZKAIKO CAMPUSA




### ALDIZKAKO MEDIKU AZTERKETAK (2011) INGENIARITZA GET



### ALDIZKAKO MEDIKU AZTERKETAK (2011) EKONOMIA ETA ENPRESA ZIENTZIEN F.




### ALDIZKAKO MEDIKU AZTERKETAK (2011) NAUTIKA ETA ITSASONTZI MAKINERIA GET








### ALDIZKAKO MEDIKU AZTERKETAK (2011) MEATZEEN ETA HERRI LANEN INGENIARITZA TEKNIKOKO UE




### ALDIZKAKO MEDIKU AZTERKETAK (2011) ENPRESA IKASKETEN UE







### ALDIZKAKO MEDIKU AZTERKETAK (2011) MEDIKUNTA ETA ODONTOLOGIA F.




### ALDIZKAKO MEDIKU AZTERKETAK (2011) ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA F.





### ALDIZKAKO MEDIKU AZTERKETAK (2011) GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN F.




### ALDIZKAKO MEDIKU AZTERKETAK (2011) ARTE EDERREN F.





**ALDIZKAKO MEDIKU  
AZTERKETAK (2011)  
BIZKAIKO CAMPUSEKO ERREKTORETZAKO AZPko  
LANGILEAK**



■ Medikuaren errezetarekin ■ Medikuaren errezetarik gabe

# 1.2.

## ASISTENTZIA JARDUERA

### Kontsultak eta larrialdiak

# KONTSULTAK ETA LARRIALDIAK

## 1.2.1.- ARABAKO CAMPUSA.

Oinarrizko Osasun Unitateak (OOU) 979 kontsulta egin ditu, honela banatuta:

- Medikuntza eta erizaintza kontsultak	450
- Txostenak eta ziurtagiriak	11
- Tabakoa uzteko laguntza	14
- Farmazia zerbitzuak	146
- Arteria presioa hartzea	35
- Injektagarriak	2
- Sendaketak: lehenengoak eta ondorengoak	32
- Tapoiak ateratzea	23
- Arreta urgentea	5
- Kanpoko laguntza	2
- Beste prozedura batzuk	98
- Gripearearen aurkako txertoa	66
- Tetanosaren/difteriaren aurkako txertoa	13
- Beste txerto batzuk	5
- Osteopatia	2
- Laneko ekintzetarako arreta	50
- Ikasleentzako eta bekadunentzako arreta	8
- ABE alditik itzultzeko osasun azterketa	3



**1.2.2.- GIPUZKOAKO CAMPUSA.**

OOUk 1.878 kontsulta egin ditu, honela banatuta:

- Medikuntza eta erizaintza kontsultak	804
- Txostenak eta ziurtagiriak	13
- Tabakoa uzteko laguntza	62
- Farmazia zerbitzuak	460
- Arteria presioa hartzea	128
- Injektagarriak	2
- Sendaketak: lehenengoak eta ondorengoak	14
- Tapoiak ateratzea	52
- Arreta urgentea	14
- Kanpoko laguntza	8
- Beste prozedura batzuk	161
- Gripearen aurkako txertoa	89
- Tetanosaren/difteriaren aurkako txertoa	8
- Beste txerto batzuk	3
- Laneko ekintzetarako arreta	25
- Ikasleentzako eta bekadunentzako arreta	35
- ABE alditik itzultzeko osasun azterketa	1

### 1.2.3.- BIZKAIKO CAMPUSA.

OOUk 2.995 jarduera gauzatu ditu, honela banatuta:

- Medikuntza eta erizaintza kontsultak	897
- Txostenak	
• Laneko istripuaren txostena	2
• Gaixotasunagatiko egiaztagiriak	9
• Mediku ziurtagiri ofiziala	14
• Ebaluazio psikosoziala	1
• Lanpostu aldaketa	2
• Amatasuna babesteko ebaluazioa eta txostena	6
• Sarrikoko minbizi kasuen prebalentzia azterketa	1
• Ahots arazoengatiko txostena	2
• Lanerako mugak zehazten dituen gaitasun txostena	2
• Langileen gaitasuna, beste enpresa batzuetarako	6
• Jardunaldi berezien txostenak	6
• Gorputzeko kalteen balorazioa	1
• Itzulerako azterketa egiteko deitutakoak: 124; egindakoak: 6	
- Tabakoa uzteko laguntza	24
- Farmazia zerbitzuak	1.073
- Arteria presioa hartzea	87
- Injektagarriak	31
- Sendaketak: lehenengoak eta ondorengoak	18
- Tapoiak ateratzea	43
- Arreta urgentea	5
- Kanpoko laguntza	1
- Beste prozedura batzuk	81
- Gripearean aurkako txertoa	340
- Tetanosaren/difteriaren aurkako txertoa	58
- Hepatitisaren/amorreriaren aurkako txertoa	3
- Beste txerto batzuk	17
- Osteopatia	297
- Ikasleentzako eta bekadunentzako arreta	7

#### UPV/EHUren campus guztietako ergonomiari dagokionez:

• Lanpostuen ebaluazioa	18
• Lantokien ebaluazioa	4

# 1.3. OHIKO GAIKOTZE TASA

## ABE BANAKETA (aldi baterako ezintasuna)


Adierazitako aldietan sortutako baja/aldi baterako ezintasun (ABE) kopuruen konparazio taula, sorrarazi zituen kausaren arabera sailkatuta:

Hilak	2010					2011				
	G. A.	L. I.	Amat.	Muf.	G.	G. A.	L. I.	Amat.	Muf.	G.
U	87	3	12	34	136	158	1	12	39	210
O	121	8	5	30	164	121	1	19	25	166
M	116	2	12	34	164	131	4	14	38	187
A	104	5	14	32	155	85	2	13	11	111
M	99	1	15	21	136	105	1	15	24	145
E	94	0	8	17	119	80	3	14	12	109
U	50	0	10	9	69	62	2	15	12	91
A	39	2	12	7	60	48	2	16	9	75
I	89	5	10	30	134	97	1	14	31	143
U	102	0	9	23	134	88	4	22	18	132
A	95	3	11	35	144	117	1	9	31	158
A	73	3	13	15	104	62	1	16	10	89
<b>GUZTIRA:</b>	<b>1.069</b>	<b>32</b>	<b>131</b>	<b>287</b>	<b>1.519</b>	<b>1.154</b>	<b>23</b>	<b>179</b>	<b>260</b>	<b>1.616</b>

G. A.= Gaixotasun arrunta  
 L. I.= Laneko istripua  
 Amat.= Amatasuna  
 Muf.= Muface lizentzia  
 G.= Guztira


1998ko irailaren 18ko Aginduari jarraiki (1998ko irailaren 25eko BOE), ohiko gertaerengatiko aldi baterako ezintasunagatiko bajaren parte medikoan, enpresarentzako alean, kendu egin da ezintasunaren diagnostikoa edo arrazoa zehazteko eremua; beraz, Agindua aplikatu denetik, laneko osasun zerbitzuek ez dute halako informaziorik eta ezinezkoa da bajaren arrazoa ezagutzea, gaixoak edo bere familiako medikuak informazio hori eman ezean.

## ABEen BANAKETA BAJA KOPURUA




GUZTIRA: 1.616

## ABEen BANAKETA GAIXOTASUN ARRUNTA




GUZTIRA: 1.154

## ABEen BANAKETA MUFACE LIZENTZIA





GUZTIRA: 260


## ABEen BANAKETA LANEKO ISTRIPUA




GUZTIRA: 23



## MUFACE LIZENTZIAGATIKO ABE



## LANEKO ISTRIPUAGATIKO ABE





# 1.4. LANEKO ISTRIPUAK

**LANEKO HARREMANA****GERTAERA***In itinere istripuak*

Kausak	GUZTIRA	AZPko langileak	Ir./ik.
Maila berera erortzea	3	0	3
Trafiko istripua	4	2	2
Gehiegizko esfortzua	1	1	0
Ibilgailu baten kontra talka egitea	1	1	
<b>GUZTIRA</b>	<b>9</b>	<b>4</b>	<b>5</b>


*In itinere EZ diren istripuak*

Kausak	GUZTIRA	AZPko langileak	Ir./ik.
Geldirik dagoen objektu baten kontra talka egitea	1	1	0
Gehiegizko esfortzua	4	4	0
Mugitzen ari den objektu baten kontra talka egitea	2	2	0
Harrapatuta gelditzea	1	1	0
Material zorrotz bat ukitzea	1	1	0
Langilearen erorketaren ondoriozko kolpea	3	3	0
Azala edo begiak substantzia arriskutsuekin ukitzea	1	1	0
Eskuzko tresnaren kontrola galtzea	1	1	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>14</b>	<b>14</b>	<b>0</b>


## ISTRIPU TASAREN INDIZEAK

	Gertaera i. (GI)		Maiztasun i. (MI)		Larritasun i. (LI)		(LI) Baremoa
	Enpresa	Jarduera	Enpresa	Jarduera	Enpresa	Jarduera	Enpresa
	2007	2,17	11,9	1,8	9,9	0,07	0,26
2008	3,01	12,3	2,45	10	0,06	0,24	0,06
2009	3,82	12	3,11	9,8	0,08	0,27	1,18
2010	4,69	11,6	3,87	9,6	0,2	0,27	0,2


2011	2,66	11,6	2,2	9,6	0,06	0,27	0,06
------	------	------	-----	-----	------	------	------



**Gertaera indizea (GI)** =  $\frac{\text{lanaldiko bajadun istripu kop.} \times 1.000}{\text{aseguratutako langileen batez besteko kop.}}$






**Maiztasun indizea (MI)** =  $\frac{\text{lanaldiko bajadun istripu kop.} \times 1.000.000}{\text{lan egindako ordu kop. guztira}}$



**Larritasun indizea (LI)** =  $\frac{\text{lanaldiko bajadun istripuengatik lan egin gabeko egunak} \times 1.000}{\text{lan egindako ordu kop. guztira}}$

2011ko ISTRIPU TASEN ANALISIA eranskinean dago.






**Oharra:** laneko bajadun istripuengatik ABEEen iraupenari dagokionez, aipatu behar da langile batek UPV/EHUtik kanpoko beste lan batean izandako istripu batengatik ABEEari zegozkion 31 egun kontuan hartu zituela.

## LAN HARREMANIK GABEKO BANAKETA

LANEKO BAJADUN ISTRIPUAK (2011)



## 1.5.

# LANEKO GAIXOTASUNAK

2011. urtean ez da laneko gaixotasunengatiko bajaran egon. Bi laneko gaixotasun antzeman dira; bat ahots kordetako noduluengatik, eta bestea esposizio kimikoengatiko anosmia batengatik.

## 1.6.

# HERIOTZA TASA



2011ko heriotzak: hemen adierazitako datuak gaixotasun arruntengatiko heriotzei dagozkie.

<b>CAMPUSA</b>	<b>IKASTEGIA</b>	<b>LANPOSTUA</b>	<b>ADINA</b>	<b>SEXUA</b>
Gipuzkoa	KIMIKA F.	AZPko langilea	33	Gizona
Bizkaia	MEATZEEN ITUE	TITULARRA	59	Gizona
Bizkaia	ENPRESA IKASK. EU	KATEDRADUNA	48	Gizona
Araba	LETREN F.	TITULARRA	57	Gizona
Bizkaia	MEDIKUNTZA F.	KATEDRADUNA	65	Gizona
Bizkaia	ZTF	KATEDRADUNA	59	Gizona
Bizkaia	ARTE EDERREN F.	TITULARRA	55	Emakumea

## 1.7.

# JARDUKETA PROGRAMA

## 1.7.1.- TXERTAKETA KANPAINAK.

### .- HEPATITISAREN AURKAKO TXERTAKETA KANPAINA


Prebentzio Zerbitzuko Osasun Arloak B hepatitisari aurre egiteko txertaketa kanpainarekin jarraitu du. Hain zuzen ere, aldi honetan txerto horren 18 dosi eman ditu.

### .- TETANOSAREN AURKAKO TXERTAKETA

2011. urtean, tetanosaren aurkako txertaketak ere aurrera jarraitu du (82 dosi). Txerto hau difteria/tetanos eran ematen da.

### .- GRIPEAREN AURKAKO TXERTAKETA

2011. urtean, Gripearen Aurkako XV. Txertaketa Kanpaina egin da. Horren barnean, 495 pertsonari jarri zaie txertoa.



### .- BESTE TXERTO BATZUK

Beste mota batzuetako txertoen 9 dosi eman dira.

## 1.7.2.- LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA.

Osasun Arloak honako jarduera hauetan hartu du parte:

### .- SEGURTASUN ETA OSASUN BATZORDEA

Prebentzio Zerbitzuko Osasun Arloak Langile Funtzionarioen Lan Baldintzen Akordio Arautzailean eta UPV/EHUko Langileen Hitzarmen Kolektiboan aipatutako Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordearen bilkuretan parte hartu du.

### .- LANPOSTUEN EGOKITZAPENA

Hainbat langile jarri dira harremanetan Prebentzio Zerbitzuko Osasun Arloarekin beren lanpostuetarako aulki ergonomiak gomendatzen dizkieten traumatologia txostenak aurkezteko. Beren mediku historia oinarritzat hartuta, lanpostuak egokitu egin dira, eta, Campuseko Errektoreordetzaren laguntzarekin, kasu bakoitzari zegokion material ergonomikoa eskuratu da.

### .- PREBENTZIO ZERBITZUAREN WEB ORRIALDEAREN MANTENTZE-LANAK



### .- BESTE JARDUERA BATZUK

.- Ezarritako protokoloen arabeko mediku azterketa arruntak, espezifikoak eta txertaketak egitea.

.- Laneko istripuen azterketa eta segimendua egitea, mutualitatearekin harremanetan jarrita.

.- Ezintasunen edo lanpostu aldaketan kasuan, familiako medikuarekin edo espezialistekin harremanetan jartzea, edo mediku azterketa egitea.

.- Langileen Gerenteordetzarekin lankidetzan aritzea osasun arazoengatik lanpostu aldaketak egiteko, irakasle eta ikertzaileen ordezkapenak kudeatzeko eta lizentziak eta baimenak emateko. Horrez gain, Prebentzio Zerbitzuko Osasun Arloak langile funtzionarioen indarreko akordio arautzaileak hobetzeko 2005eko azaroaren 18ko akordioetan eta kasu espezifikoko lanaldi berezietan buruzko 2005eko ekainaren 22ko batzorde paritarioaren akordioan parte hartzen du.

.- Amatasunaren babesa.

[http://www.zerbitzu-orokorrak.ehu.es/p258-shprevct/eu/contenidos/informacion/proteccion\\_maternidad/eu\\_notif/notificacion\\_embarazo.html](http://www.zerbitzu-orokorrak.ehu.es/p258-shprevct/eu/contenidos/informacion/proteccion_maternidad/eu_notif/notificacion_embarazo.html)



.- Larrialdietarako arreta medikoa unibertsitate komunitate osoari.

.- Ikastegietako botika kutxen mantentze-lanak.

[http://www.zerbitzu-orokorrak.ehu.es/p258-shprevct/es/contenidos/informacion/intrehu\\_botiquines/es\\_info/reposicion\\_botiquines.html](http://www.zerbitzu-orokorrak.ehu.es/p258-shprevct/es/contenidos/informacion/intrehu_botiquines/es_info/reposicion_botiquines.html)

.- OSALANen ikuskapenetan, ikuskatzaileari bere lana egiteko behar izan dezakeen laguntza ematea.

.- Bulegoko materiala erosteko prozesuetan parte hartzea.

.- Lanpostuak egokitzea.

.- Substantzia kimiko katalogatuekin eta ez katalogatuekin egindako Operazioen Aitorpena egiteko urteroko galdera sorta betetzea.

.- Tabakismoari aurre egiten laguntzea, hala nahi duten erretzaileei tratamendu bat eskainiz.



.- Zerbitzuen Karta egitea, UPV/EHUK Euskalit-ekin batera egindako eredu espezifikoari jarraituz. UPV/EHUK eta Euskalitek 2010eko urriaren 19an egindako ebaluazio pilotuan parte hartu ondoren, Zerbitzuen Karta onartua izan zen, UPV/EHUko Zerbitzuen Karten ereduaren arautegia onartzen duen Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluaren 2011ko urriaren 13ko Erabakiaren bidez (EHAA, 2011ko abenduaren 28koa, asteazkena). Bertako lehenengo XEDAPEN GEHIAGARRIAN honela dago zehaztuta:

*.- Erregistro horretan sartuko dira 2010. urtean Prestakuntza eta Gestio Hobekuntzako Gerenteordetzaren eta Kalitate eta Ebaluazio Instituzionalerako Zerbitzuaren zuzendaritzapean, Euskaliten lankidetzarekin batera, ebaluazio pilotuan modu esperimentalean parte hartu duten bi administrazio unitateak. Beraz, bi zerbitzuek, Ikuskaritza Zerbitzuak eta **Prebentzio Zerbitzuak**, lortutako ziurtapen maila balioztatuta gelditu da (bi kasuetan, oinarritzko maila da).*

.- UPV/EHUko Prebentzioa Kudeatzeko Sistema osatzen duten prozedurak egiteko lantaldean parte hartzea.

.- Medikuekin hitzordua hartzeko eskaera informatizatzea.

<https://lgpx09.lg.ehu.es/calendario.nsf>



### **1.7.3.- EPIDEMIOLOGIA ETA OSASUN PUBLIKOA.**

Osasun Sailarekiko lankidetzak.

### **1.7.4.- PSIKOSOZIOLOGIA.**

Prebentzio Zerbitzuko buruak gauzatutako jarduerak (aldezlerik izendatuta egon ezean), Jazarpena Prebenitzeko eta Jazarpen Kexak Konpontzeko UPV/EHUren eta UPV/EHU Un Ordezkaritza duten Sindikatuen Arteko Hitzarmenaren 21.3 artikulua zehazten duenari jarraituz; baita Batzorde Arbitrala martxan jartzea ere.

2.

# ARLO TEKNIKOA

## **2.1.- PREBENTZIO JARDUERAK ANTOLATZEKO MODALITATEA**

UPV/EHUK Prebentzio Zerbitzuen Araudian (39/1997 ED) ezarritakoa oinarritzat hartuta erabiltzen duen modalitatea bere Prebentzio Zerbitzua osatzea da, 2003ko apirilaren 7ko errektorearen Erabaki bidez (lau espezialitateekin).

## **2.2.- NABARMENDU BEHARREKO 2011ko JARDUERAK**

### **.- JARDUEREN ARABERAKO ARRISKUEN EBALUAZIOA**

Kasu gehienetan, baita UPV/EHUn ere, Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalaren (LSHIN) metodoa erabiltzen da arriskuak ebaluatzeko. Metodo hori arrisku bat baloratzean garrantzi handia duten bi kontzeptu bateratzean datza:

- Arrisku faktore batzuk kalte bihurtzeko aukera.
- Kalteen larritasuna (ondorioak).

Horietako bakoitzari hiru balorazio maila aplikatzen zaizkio, bost arrisku maila lortuz:

- Arrisku onartezina.
- Arrisku handia.
- Neurrizko arriskua.
- Arrisku onargarria.
- Garrantzirik gabeko arriskua.

UPV/EHUn, arriskuen ebaluazioa lantokien, ekipoen edo arriskuen eta, azkenik, jardueren arabera egiten da, Campus Arteko Segurtasun eta Osasun Batzordeak onartutako metodoari jarraituz.

Lehenengo biak egin ondoren, 2011n jardueren arabeko arriskuaren ebaluazioa eguneratzeari ekin genion, hiru jarduera berri kontuan hartuta. Ebaluazio honen oinarria irakasle eta ikertzaile edo AZPko langile bakoitzak egiten dituen jarduerak ebaluatzea da.

Baliteke lanpostu batek jarduera bat baino gehiago barne hartzea. Esaterako, irakasle batek, irakaskuntza teorikoa emateaz gain, beste zenbait jarduera ere egin ditzake: kudeaketa, ikerketa, landa praktikak, etab.

Hori dela eta, langile bakoitzak bere lanpostuari lotutako arriskuak ikus ditzake langileen atarian, eta baliteke lanpostu batek jarduera bat baino gehiago barne hartzea.



**Glosario de códigos de actividades  
Jardueren kodeen glosarioa**

1	QCA	Química	KIM	Kimika
2	BIO	Biotecnología	BIO	Bioteknologia
3	GEO	Geología	GEO	Geologia
4	EYE	Electricidad y electrónica	EEE	Elektrizitatea eta elektronika
5	MEC	Mecánica	MEK	Mekanika
6	ACL	Auxiliar de clínica	KLL	Klinikako laguntzailea
7	DES	Desplazamientos	DES	Lekualdatzeak
8	NAV	Actividades con embarcaciones	ITS	Jarduerak itsasontziekin
9	RIO	Radiaciones ionizantes	EIO	Erradiazio ionizatzailea
10	RNI	Radiaciones no ionizantes	EEI	Erradiazio ez-ionizatzailea
11	ANI	Trabajo con animales de	ANI	Lana espermentazio-animaliekin
12	BEL	Bellas artes	ART	Arte ederrak
13	DOT	Docencia teórica	IRT	Irakaskuntza teorikoa
14	ADM	Actividades administrativas	ADM	Administrazio-jarduerak
15	AAP	Actividades con atención al	ARR	Herritarren arretarako jarduerak
16	INS	Inspecciones	IKU	Ikuskaritzak
17	MMC	Manipulación manual de cargas	KEM	Kargak eskuz manipulatzea
18	GES	Actividades de gestión	KUD	Kudeaketa-jarduerak
19	MTO	Mantenimiento	MAN	Mantentze-lanak
20	PVD	Trabajo con PVD	DBP	Lana PVDrekin
21	CAM	Trabajo de campo	LAN	Landa-lana
22	AJE	Trabajo en instalaciones ajenas a	KAN	Lana UPV/EHUz kanpoko instalazioetan
23	JAR	Jardinería	LOR	Lorezaintza
24	CAR	Carpintería	ARO	Aroztegia
25	PIN	Pintura	PIN	Margolaritza
26	ELE	Electricidad	ELE	Elektrizitatea
27	ODO	Clínica Odontológica	ODO	Klinika odontologikoa
28	FON	Fontanería	ITU	Iturgintza
29	SOL	Soldadura	SOL	Soldadura
30	GEN	Riesgos generales	ORO	Arrisku orokorrak
31	MED	Ciencias de la salud	OSA	Osasunaren zientziak
32	RRE	Recepción de residuos	HBI	Hondakinak biltzea
33	MRE	Manipulación de residuos	HMA	Hondakinak maneiatzea

Laborategiko teknikariek eta tailer maisuek, beren zereginak oso espezifikoak direnez, lan arriskuen prebentzioko goi mailako teknikari baten bisita jaso dute, eta arriskuen ebaluazio espezifikoa higienari buruzko inkesta baten bitartez egin diete.

### **.- BIOETIKA BATZORDEETAN PARTE HARTZEA**

Agente Biologikoekin egindako Ikerketetarako Etika Batzordearekin zerikusia duten zenbait ikerketa proiekturen balorazioa.

### **.- LANERAKO ARROPA: LABORATEGIKO ETA TAILERREKO MANTALAK**


2010eko urritik, kutsatzaile kimiko arriskutsuekin (honela sailkatutakoak: oso toxikoak, toxikoak, kantzerigenoak, mutagenoak eta agente biologikoak) lan egiten duten Unibertsitateko langileen lanerako arropa (MANTALAK) ematea barne hartzen duen zerbitzu berri bat jarri da martxan, dagokion araudi aplikagarriari jarraiki (31/1995 Legea, laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa; 664/1997 ED, agente biologikoei buruzkoa; 665/1997 ED, agente kantzerigenoei buruzkoa; 374/2001 ED, arrisku kimikoari buruzkoa;

eta 349/2003 ED, agente mutagenoei buruzkoa). Zerbitzu berri horrek harrera oso ona izan du UPV/EHUren ikastegi desberdinetako laborategietan lan egiten duten langileen artean.

Zerbitzu berri hau ikastegi hauetan ezarri da:

CAMPUSA	IKASTEGIAK
ARABA	CEIA zentroa Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskola Farmazia Fakultatea Letren Fakultatea Prebentzio Zerbitzua
GIPUZKOA	Korta eraikina Kimika Fakultatea Donostiako Politeknikoa Prebentzio Zerbitzua
BIZKAIA	Erizaintzako Unibertsitate Eskola Nautika eta Itsasontzi Makineria GET Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoa Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola Abeltegia Arte Ederren Fakultatea Zientzia eta Teknologia Fakultatea Medikuntza eta Odontologia Fakultatea Prebentzio Zerbitzua





Erabiltzaile kopuruaren bilakaera.

## **.- JARDUERA LIZENTZIA**

Lizentzia horien izapideetan parte hartzea.

## **.- KATALOGATUTAKO SUBSTANTZIA KIMIKOEKIN EGINDAKO OPERAZIOEN AITORPENA EGITEKO URTEROKO GALDERA SORTA**

Barne Ministerioan drogak edo produktu ilegalak egiteko erabil daitezkeen substantzietan dagokion dokumentazioaren izapideak egitea. Katalogatutako eta Katalogatu Gabeko Substantzia Kimikoekin lan egiten dutenen aitortzenaren urteroko galdera sortak bidali dira; denek erantzun dituzte eta dagokion informazioa Barne Ministerioari bidali zaio.

## **.- AUTOBABESERAKO PLANEN EGUNERATZEA**

Egungo planak eguneratzeko preskripzio teknikoen orria egin da, eta 2010eko abenduaren 14ko EHAAn argitaratutako Dekretu berriaren arabera Autobabeserako Planen formatura egokitu dira (277/2010 Dekretua, azaroaren 2koa, jarduera, zentro edo establezimendu jakin batzuei eska dakizkiekeen autobabeserako betebeharrak, helburu gisa larrialdi egoerei aurre egitea dutenak, arautzen dituenak).

## **.- ENPRESA JARDUEREN KOORDINAZIOA**

Laneko segurtasun eta osasun arloko enpresen koordinazio sistema bat ezarri da, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen duen urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuan ezarritakoari jarraituz. Hala, enpresa kontratistek eta azpikontratistek, elkartutako erakundeek, langile autonomoek, administrazio emakidek, etab. UPV/EHUn egiten dituzten lanetan edo zerbitzuetan egon daitezkeen laneko arriskuak ezabatzen edo murrizten lagundu beharko dute, unibertsitate komunitateari eta kanpoko enpresetako langileei segurtasun eta osasun arloko babes eraginkorra bermatuz, betiere, helburu horri egokitutako enpresen koordinaziorako bitartekoak aplikatuta.

Horretarako informazio hau ematen da:

1. **Egin beharreko lanen** deskribapena.
2. Lan horiek egiteak dakartzan **arriskuen ebaluazioa**.
3. **Langileen zerrenda: TC1 eta TC2**.
4. Laneko Arriskuen Prebentziorako Legearen eta hori garatzen duten xedapenen arabera laneko arriskuen **Prebentzio Plana**.
5. Beren jarduerak Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) edo erakunde horrentzat egingo dituzten langileentzako **informazioa**, beren zereginak gauzatzean jasan ditzaketen segurtasun eta osasun arriskuei eta arrisku horiei aplika dakizkiekeen babes eta prebentzio neurriei buruzkoa.
6. UPV/EHUn edo erakunde horrentzat lan egingo duten langileen segurtasun eta osasun arloko **prestakuntza ziurtagiriak** (prestakuntzak lotura izan beharko du gauzatuko dituzten zereginekin).
7. **Babes neurriak:** langileek UPV/EHUn edo erakunde horrentzat lan egiteko erabili beharko lituzketen NBEen eta lanerako ekipoen zerrenda. Ekipamendu horiek bat etorri beharko dute norbera babesteko ekipoen zerrenda eta lanerako ekipoen zerrenda ezarrita eta indarrean dauden legezko irizpideekin.
8. **Prebentzioaren antolamendu eredua:** bertako Prebentzio Zerbitzua edo kanpoko.
9. **Harremanetarako pertsona:** UPV/EHUn segurtasun eta osasun koordinatzailea izango da (helbidea, telefonoa, faxa eta helbide elektronikoa).
10. **Larrialdietarako jarduketa eta neurriak:** antolamendua.
11. **Osasunaren zaintza:** UPV/EHUn edo erakunde horrentzat lan egingo dutenen gaitasuna egiaztatzen duten mediku ziurtagiriak.
12. **Erantzukizun zibileko aseguruak.**

## **.- BIDEOAK EGITEA**

Su itzalgailuen erabilerari, datuak ikusteko pantailen erabilera egokiari, Areto Nagusia husteko jarraibideei eta Bizkaia Aretoa husteko jarraibideei buruzko lau bideo egin ditugu.

## **CAMPUSEN ARABERAKO AURKIBIDEA**

2011ko Arlo Teknikoko jarduera eskema honi jarraituz dago azalduta:

- 1.- Antolamendu paritarioa. Segurtasun eta Osasun Batzordearen bilkurak.
- 2.- Prebentzio jardueren plangintza.
- 3.- Arriskuen ebaluazioa.
- 4.- Prebentzio neurriak gauzatzea.
- 5.- Enpresa jardueren koordinazioa.
- 6.- Autobabeserako planak.
- 7.- Prestakuntza.
- 8.- Aldizkako kontrolak. Segurtasun ikuskapenak.
- 9.- Arauzko ikuskapenak.
- 10.- Kontrol higienikoak.
- 11.- Istripuen eta gorabeheren azterketa.
- 12.- Beste jarduera batzuk.

## **ARABAKO CAMPUSA**

### **1.- Antolamendu paritarioa. Segurtasun eta Osasun Batzordearen bilkurak.**

2011n, Segurtasun eta Osasun Batzordea egun hauetan bildu da:

- 2011ko otsailaren 22a
- 2011ko maiatzaren 26a
- Urriaren 6a (bertan behera utzita, quorum faltagatik)
- Abenduaren 15a (bertan behera utzita, quorum faltagatik)

### **2.- Prebentzio jardueren plangintza.**

2011ko lehen hiruhilekoan urteko prebentzio jardueren plangintza egin da, Arabako Campuseko Gerenteordetzaren laguntzarekin.

### **3.- Arriskuen ebaluazioa.**

Jardueren araberako arriskuen ebaluazioak eta eraikinen (lantokiak) araberako arriskuen ebaluazioak egin ditugu.

Arabako Campuseko Prebentzio Zerbitzuko Osasun Arloarekin batera, arriskuen ebaluazio espezifikoa egin diegu Farmazia Fakultateko AZPko langile bati eta Ingeniaritzako UEko irakasle eta ikertzaile bati, beren egoera fisikoak laneko osasunean negatiboki eragin ote diezaiekeen aztertzeko.

### **4.- Prebentzio neurriak gauzatzea.**

## **ELURRETA ERAIKINA**

- Campuseko telefonia langileentzako lan eremu berri bat jarri da.
- “Hemen zaude” kartelak aztertu dira.
- Beste su itzalgailu bat instalatu da beheko solairuko atsedenerako lokaletan.
- Usain txarra botatzen zuten estoreak kendu dira bi bulegotan.
- WiFi datuak transmititzeko antena bat lekuz aldatu da.

## **INGENIARITZAKO UE**

- Ingeniaritzako UEko ekitaldi aretoko zati bat kanpoalderantz modu seguruan eta zuzenean hustea ahalbidetzen duen pasabide bat instalatu da.
- Laborategiko substantzia kimikoekin lan egiteari buruzko gomendioen zerrenda bat egin da Ingeniaritzako UEko haurdun dagoen irakasle batentzat.
- Suaren kontrako ateetan zenbait irregulartasun hauteman dira, baita konpondu ere.

## **GIZARTE LANGINTZAKO UE**

- Gizarte Langintzako UEko makrogela bat bitan zatitu da. Zatiketa hori dela eta, pixka bat aldatu dira ikastegia husteko baldintzak, beraz, eraikinaren ebakuazioari dagokion araudia betetzen dela egiaztatzeko txosten tekniko bat egin da.

## **FARMAZIA FAKULTATEA**

- Farmazia Fakultateko sail bateko esperimenduetan material zitostatikoa prozesatzean aplikatu beharreko euste neurriei buruzko txosten bat egin da.
- Suteak antzemateko eta alarma jotzeko sistema berri bat instalatu da ikastegian.
- Diphoterine jarri da berriz Farmazia Fakultateko 2 sailetan.

## **JFKZF**

- Baranda bat instalatu da JFKZFko ekitaldi areto berriaren irteeretako batean. Areto horretako beste irteerako atearen norabidea aldatu egin da.
- Ikastegiko seinaleak aztertu dira.

## **ENPRESA IKASKETEN UE**

- Behe solairuko 5. eta 6. bulegoak bereizten dituen trenkadako morteroaren zati bat kendu da. Ondoren, pladurrezko trenkada bat instalatu da 5. bulegoan, eremua beste emisio iturri batzuetatik babesteko. Horrez gain, 2 zulo egin dira aire ganberan eta bulegoan, bi eremuak hobeto aireztatzeko. Neurri zuzentzaile horiek gauzatu ondoren, 5. bulegoan usainik ez dagoela egiaztatu da.

## **LASCARAY IKERGUNEA**

- LASCARAY IKERGUNEKO lokal batek Dewar erako ontziak barne hartzeko izan behar dituen ezaugarriak egiaztatu dira.
- Hondakin arriskutsuen biltegia eta hondakin biologikoen biltegia seinaleztatu dira.

## 5.- Enpresa jardueren koordinazioa.

2011n hasiera eman zaio enpresa jarduerak koordinatzeko prozeduraren ezarpenari.

## 6.- Autobabeserako planak.

### 6.1.- Autobabeserako planen txostenak eguneratzea.

Larrialdietarako planak eguneratzea:

- Farmazia Fakultatea
- JFKZF
- Enpresa Ikasketen UE
- Gizarte Langintzako UE
- Letren Fakultatea
- Medikuntza Ikasgunea
- Irakasleen UE
- Errektoreordetza

### 6.2.- Ezarpena: prestakuntza eta simulazioak.

Egindako simulazioen taula eta larrialdietarako planen eguneratzeen aurreikuspena erantsi dira:

IKASTEgia	URTEKO PLANAREN ARABERA SIMULAZIOARENTZAT AURREIKUSITAKO DATA	LARRIALDIETARAKO PLANEN EGUNERATZEA
MEDIKUNTZA IKASGUNEA	2011ko azaroaren 23a	2014ko urria
INGENIARITZAKO UE	2011ko urriaren 7a	2013ko urtarrila



2011. URTEKO MEMORIA

IKASGELATEGIA	2011ko azaroaren 18a	2012ko abendua
PABILOIA	2011ko maiatzaren 27a	2013ko apirila
GIZARTE LANGINTZAKO UE	2011ko abenduaren 22a	2014ko iraila-urria
ERREKTOREORDETZA	2011ko maiatzaren 25a	2014ko abendua
FARMAZIA F.	2011ko azaroaren 29a	2012ko martxoa
LETREN F. 1	2011ko abenduaren 2a	2014ko urria
LETREN F. 2	2011ko abenduaren 2a	2012ko otsaila-martxoa
JFKZF	2012ko otsailaren 15a	2014ko maiatza
ENPRESA IKASKETEN UE	2011ko abenduaren 22a	2014ko iraila-urria
IRAKASLEEN UE	2011ko abenduaren 16a (BERTAN BEHERA, EKAITZAGATIK)	2014ko urria-azaroa
LASCARAY IKERGUNEA	2012ko martxoa	2012ko urria

Arabako Campuseko suteen aurka babesteko sistemen aldizkako kontrolak Sercoin enpresak egiten ditu (ez dago berritasunik puntu honi dagokionez).

Suteen zentrala ordeztu ondoren, Campuseko kontrol zentroan integratu da.

Farmazia Fakultatean eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultateko kirolegian suteak antzemateko eta alarma jotzeko sistema berri bat instalatzeko proiektua idatzi da. Instalazioa egiteko orria adjudikatuta dago, eta une honetan egiten ari dira.

## 7.- Prestakuntza.

Ikusi prestakuntzari buruzko atala.

## 8.- Aldizkako kontrolak. Segurtasun ikuskapenak.

Mota honetako ikuskapenetarako zehaztutakoak, Prebentzio Zerbitzuari eta/edo Arlo Teknikoko ikuskapenen zerbitzuari egindako eraikinetako mantentze-lanak egiteko eta arriskuak kontrolatzeko eskaeren arabera.

## **9.- Arauzko ikuskapenak.**

Araudiek mota honetako ikuskapenak behar dituzten elementuentzat ezarritakoak.

## **10.- Kontrol higienikoak.**

- LASCARAY IKERGUNEKO lokaletako temperatura neurtzea.
- LASCARAY IKERGUNEKO laborategietako hezetasuna neurtzea, zentroko klimatizazio ekipotetan neurri zuzentzaileak hartu ondoren.
- Enpresa Ikasketen UEko bi bulegotako higiena baloratzea eta usainen ezaugarriak zehaztea. Ildo horretatik, eta jatorri ezezaguneko usainen ezaugarriak zehaztu behar izan direnez, neurketak 2 fasetan egin dira: lehenengoan usainen konposizioa zehazten saiatu gara (formaldehido kontzentrazio baxu samarrak aurki dira), eta bigarrenean (une honetan martxan dago), usain horien jatorria edo iturria aurkitu nahi dugu.

## **11.- Istripuen eta gorabeheren azterketa.**

Istripuen analisia Osasun Arloak egiten du. Istripuak eta gorabeherak aztertu dira, eta prebentzio eta zuzenketa neurriak proposatu eta hartu dira, bai teknikoak/informatzaileak bai antolamenduari dagozkionak.

## **12.- Beste jarduera batzuk.**

- Campuseko ikastegi guztietako diagnostiko bat eta irisgarritasun plan bat egin dugu.
- UPV/EHUren autobabeserako planak egiteko eta/edo eguneratzeko txosten teknikoa gauzatzeko prozesuan parte hartu dugu.
- Euste mailaren ziurtagiriak entregatu dizkiegu 4 laborategiri (2 Farmazia Fakultatean, 1 LASCARAY IKERGUNEAN eta 1 JKFZFn).
- Euste mailaren 2 akreditazio eskatu dira 2012an egin beharreko Farmazia Fakultateko bi laborategitarako.
- 2011n, Farmazia Fakultateko eta Errektoreordetzako jarduera lizentzia eskuratzeko datuak bildu ditugu. Farmazia Fakultateko lehen zirriborroa egin dugu. 2012ko lehen hiruhilekoan aurkeztuko dugu dagozkion espazioen behin betiko txostena, eta egin beharreko izapideak egingo ditugu. Horrez gain, Errektoreordetzaren jarduera lizentziarako memoria martxan dago.



## **GIPUZKOAKO CAMPUSA**

### **1.- Antolamendu paritarioa. Segurtasun eta Osasun Batzordearen bilkurak.**

Aktiboki parte hartu dugu 2011n Gipuzkoako Campusean egin diren Batzordearen bilkuretan. Zehazki, 4 bilkura egin dira, indarreko araudiari jarraituz. Hona hemen bilkura horien datak:

- 2011ko martxoaren 1a
- 2011ko ekainaren 14a
- 2011ko urriaren 18a
- 2011ko abenduaren 20a

### **2.- Prebentzio jardueren plangintza.**

Hiru hilean behingo Campuseko Batzordean, hiruhileko horretan prebentzioaren kudeaketari dagokionez gauzatutako ekintzak landu ditugu, eta etorkizunerako aurreikusitako ekintzak azaldu ditugu.

### **3.- Arriskuen ebaluazioa.**

2011n, Gipuzkoako Campuseko lantokietako arriskuen ebaluazioa eguneratu dugu. Sehtra programako formatudun txostenak Campuseko eraikinetan eta eraiki gabeko guneeetan aurkitutako arriskuak barne hartzen ditu.

### **4.- Prebentzio neurriak gauzatzea.**

Kimika Fakultatean, Korta I+G+B zentroan eta Unibertsitate Eskola Politeknikoan zaharkitutako Diphoterine dosiak berritu ditugu.

### **5.- Enpresa jardueren koordinazioa.**

Zentro mistoa: CSICen Prebentzio Zerbitzuko buruarekin bildu gara, enpresa jardueren koordinazioa lantzeko: larrialdi planen seinaleztapena.

### **6.- Autobabeserako planak.**

#### **6.1.- Autobabeserako planen txostena eguneratzea.**

Carlos Santamaria liburutegiko Autobabeserako Plana egiten ari gara, baita ikastegi hauetako Autobabeserako Planak eguneratzen ere:

Erizaintzako/Medikuntzako Eskola  
Zuzenbide Fakultatea

Eibarko IITUE  
Korta eraikina  
Pabiloia  
Campuseko Errektoreordetza  
Enpresa Ikasketen Eskola

## **6.2.- Ezarpena: autobabeserako planetatik/autobabeserako eskuliburuetatik ateratako prestakuntza eta simulazioak.**

Zenbait bilkura egin dira simulazioen aurretik.

### **Simulazioak**

Ikastegi hauetan egin ditugu ebakuaziodun simulazioak:

Erizaintzako Eskola  
Kimika Fakultatea  
Zuzenbide Fakultatea  
UE Politeknikoa

Ikastegi hauetan egin ditugu ebakuaziorik gabeko simulazioak:

Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea  
Korta eraikina  
Enpresa Ikasketen Eskola

## **7.- Prestakuntza.**

Ikusi prestakuntzari buruzko atala.

## **8.- Aldizkako kontrolak. Segurtasun ikuskapenak.**

Besteak beste, gas botilak eta biltegi zentralizatuak barne hartzen dituzten ikastegiak eta laborategiak.

Kalteak eta bandalismoa Campusean: hautsitako elementuak aurkitu digu, esaterako, bankuak eta iturriak.

## **9.- Arauzko ikuskapenak.**

Industria araudiaren menpe dauden Campuseko elementuen ikuskapenak egin ditugu, Arkitektura eta Obra Zerbitzuak kudeatuta.

## **10.- Kontrol higienikoak.**

Elementu lurrunkorren kontzentrazioa antzeman dugu Erizaintzako Eskolaren teilatuan.

## **11.- Istripuen eta gorabeheren azterketa.**

Istripuak eta gorabeherak aztertu ditugu, eta prebentzio eta zuzenketa neurriak proposatu eta martxan jarri ditugu, bai teknikoak/informatzaileak bai antolamenduari dagozkionak.

## **12.- Beste jarduera batzuk.**

A.- Gehienbat beste pertsona batzuen eskaerei jarraituz, prebentzio/zuzenketa neurri hauek jarri ditugu martxan:

### Carlos Santamaria eraikina

Hainbat gairi buruzko txostena, prebentzio ordezkariek hala eskatuta.

Apalaren erorketaren txostena.

Ebakuazio bideko erorketari (izotzagatik) eta larrialdi atetik sartzeari buruzko txostena.

Bizilagun baten balkoian onartutako mugatik goragoko soinu eraginagatiko salaketa.

Beroaren, aireztapenaren eta hezetasun erlatiboaren txostena.

### Eibarko IITUE

Gehiegizko esfortzuagatiko istripua.

### Materialen Fisika Zentroa

Lantoki bateko arrisku elektrostatikorako faktoreen txostena.

### Kimika Fakultatea

Simulazioaren txostena.

Erreakzio alergiko lokala.

Zipriztinak.

Polimeroak tratatzeko laborategiko aireztapena.

### Informatika Fakultatea

Erorketa eta irrista.

Alergia eta azkura.

### Ingeniariaren Eskola, UE Politeknikoa:

CO<sub>2</sub> botilari eta beste botila batzuei buruzko txostena.

Tximistorratzaren eta zorrotaren lerroa.

Kolpea Santa Maria katedraleko bulego batean.

Zipriztinak.

Aurpegiko erreakzio alergikoa.

### Korta eraikina

Sabai isunaren erorketaren txostena.

Leihoaren orriarekin hartutako kolpe baten txostena.

Ebakuaziorik gabeko simulazioaren txostena.

Alergia eskuetan.

Irakasleen Eskola

Maila bererako erorketa, obretako behin-behineko gunea zapaltzeagatik.

Psikologia Fakultatea

Ekipo elektrogenoa.

FHZF

Beste maila baterako erorketa, leihoa irekitzean.

Erizaintzako Eskola

Simulazioaren txostena.

Esperientzia Gelak

Amianto osagaiak dituzten trenkadak aurkitzea.

B.- Beste zenbait jarduera

Hainbat ikastegitako jarduera lizentziak kudeatzeko prozesuetarako aholkularitza ematea, eta zirriborroak aztertzea eta zuzentzea.

*“Makinen arriskua: arrisku mekanikoa eta elektrikoa”* ikastaroari buruzko hamabost orrialdeko prestakuntza txosten bat egitea.

Santa Maria Katedrala Fundazioarekin enpresa jarduerak koordinatzea.

CSICekin enpresa jarduerak koordinatzea.

## **BIZKAIKO CAMPUSA**

### **1.- Antolamendu paritarioa. Segurtasun eta Osasun Batzordearen bilkurak.**

2011n Bizkaiko Campusean egindako Batzordearen hainbat bilkuratan parte hartu dugu. Zehazki, bi bilkura egin dira, horietako bat quorumik gabe.

- 2011ko ekainaren 7a

### **2.- Prebentzio jardueren plangintza.**

Prebentzio jardueren plangintza egin dugu, Bizkaiko Campuseko Gerenteordetzaren lankidetzarekin.

Arriskuei buruzko hainbat txosten egin ditugu Bizkaiko Campuseko zenbait eraikinetan, eta beharrezko prebentzio neurriak hartu ditugu.

### **3.- Arriskuen ebaluazioa.**

2011n lantokietako arriskuen ebaluazioa egin dugu.

Bizkaiko Campuseko ikastegi desberdinetako ebaluazioa egiteko beharrezko bisitak egin ditugu.

Ebaluazioaren emaitzak barne hartzen dituen txostena otsailean egin zen.

### **4.- Prebentzio neurriak martxan jartzea.**

- Suteen aurkako babes sistemak jarri ditugu edo horien mantentze-lanak egin ditugu honako ikastegi hauetan:
  1. Esperientzia Gelak
  2. I. ikasgelategia
  3. II. ikasgelategia
  4. Arte Ederren Fakultatea
  5. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
  6. Zientzia eta Teknologia Fakultatea
  7. Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola (Elkano)
  8. Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoa
  9. Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola (Etxetxua)
  10. Liburutegi Nagusia
  11. Miguel de Unamuno y Jugo Ikastetxe Nagusia



12. Irakasleen Unibertsitate Eskola
13. Medikuntza Fakultatea
14. Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola
15. Nautika eta Itsasontzi Makineria Goi Eskola Teknikoa
16. Errektoretza eraikina
17. Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea
18. Sarrikoko txaletak
19. Erizaintzako Unibertsitate Eskola
20. Areto Nagusia
21. Galdara gela

- Ikusitako zenbait urritasun zuzendu ditugu; esaterako, eskaileretan barandak jartzea, zaratarentzako pantailak jartzea, aireztapena hobetzea, etab.
- Arte Ederren Fakultatean hondakinen biltegi berri bat eta harri tailer berri bat egin dugu, izan ere, aurreko ebaluazioetan orain konpondu ditugun zenbait arazo ikusi genituen.
- Mantentze-lanen zerbitzua beste lokal batzuetara aldatu dugu, eta lanerako ekipo eta makina zaharrak kendu egin ditugu.
- Arrisku biologikoa duten laborategiak egokitu egin ditugu. Intsektuen aurkako sareak instalatu ditugu arrisku biologikoa duten laborategi guztietan.
- Hainbat segurtasun material instalatu ditugu: begiak garbitzekoak, dutxak, etab.

### **5.- Enpresa jardueren koordinazioa.**

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen duen enpresa jardueren koordinazioari buruzko 171/2004 EDak langileen segurtasunaren eta osasunaren gorenko babes maila lortzeko bete beharreko gutxieneko arauak zehazten ditu, eta bete beharreko helburu hauek ezartzen ditu:

- a. Lantokian bat egiten duten enpresa desberdinek Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 15. artikuluan ezarritako prebentzio ekintzen printzipioak modu koherentean eta arduratsuan aplikatzea.
- b. Lantokian bat egiten duten enpresek laneko metodoak behar bezala aplikatzea.
- c. Lantokian gauzatzen diren jarduera desberdinen elkarrekintzak kontrolatzea, bereziki, larrizat edo oso larrizat jotzen diren arriskuak sorraraz ditzaketenean edo lantokian beren artean bateraezinak diren jarduerak gauzatzen direnean (langileen segurtasunean eta osasunean izan dezaketen eraginagatik).

- d. Lantokian bat egiten duten enpresetako langileei eragin diezaieketen arriskuak prebenitzeko aplikatutako neurriak egokitzea.

Horretarako, UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzuak helburu horiek betetzea bermatuko duen prozedura bat gauzatu du, kanpoko erakunde publiko nahiz pribatu batek UPV/EHUren instalazioetan lan egiten duenerako. Horrez gain, UPV/EHUko langileek Unibertsitatetik kanpoko lantokietan gauzatzen dituzten jardueri ere aplika dakieke.

## 6.- Autobabeserako planak.

### 6.1.- Autobabeserako planen txostenak eguneratzea.

Egungo planak eguneratzeko eta horiek 2010eko abenduaren 14ko EHAAn argitaratutako dekretu berriaren arabera autobabeserako planen formatuari egokitzeko preskripzio teknikoaren orriari jarraituz, ikastegi hauetako dokumentuak eguneratu ditugu:

<b>Autobabeserako eskuliburuak (2011)</b>
<u>Bilboko Ingeniaritza GET</u>
<u>Bilboko Enpresa Ikasketen UE</u>
<u>Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE</u>
<u>Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko UE</u>
<u>Bilboko Irakasleen UE (Leioa)</u>
<u>Arte Ederren F.</u>
<u>Ekonomia eta Enpresa Zientzien F.</u>
<u>Gizarte eta Komunikazio Zientzien F.</u>
<u>(Medikuntza eta Odontologia F. + Leioako Erizaintzako UE)</u>
<u>Bizkaiko Esperientzia Gelak</u>
Galdara gela
Unamuno

## **6.2.- Ezarpena: autobabeserako planetatik/autobabeserako eskuliburuetatik ateratako prestakuntza eta simulazioak.**

Zenbait ikastegitan Autobabeserako Batzordeak, Lehen Esku Hartze Taldeak, Ebakuazio Taldeak eta Kontrol Zentroak izendatu ditugu. Horrez gain, kontrol zentroetako langileei telefonoguneak erabiltzeko beharrezko prestakuntza eman diegu.

Simulazioak ere egin ditugu:

- Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko UE (3 simulazio, ordutegi desberdinetan).
- Unamuno egoitza.
- Esperientzia Gelak.
- Sarrikoko txaletak.

## **7.- Prestakuntza.**

### **IKUSI ARLO TEKNIKOKO IKASTAROAK**

## **8.- Aldizkako kontrolak. Segurtasun ikuskapenak.**

### **8.1.- Aldizkako kontrolak.**

Bi aldiz aztertu ditugu suteen aurkako babes sistemetako elementuak eta Campuseko ikastegi guztietako seinaleak. Horrez gain, larrialdietarako plan berriek zehazten dituzten ebakuazio bideak aztertu eta egokitu ditugu.

### **8.2.- Segurtasun ikuskapenak.**

Bizkaiko Campuseko arriskuen ebaluazio dokumentuan bildutako hainbat ikuskapen egin ditugu.

## **9.- Arauzko ikuskapenak.**

Industria araudiaren araberako Campuseko elementuen ikuskapenak egin ditugu, Arkitektura eta Obra Zerbitzuak kudeatuta.

## **10.- Kontrol higienikoak.**

Kutsatzaile kimikoen neurketak egin ditugu Zientzia eta Teknologia Fakultateko laborategietan.

### **11.- Istripuen eta gorabeheren azterketa.**

Osasun Arloaren arreta jaso duten istripuak ikertu ditugu. Bat bera ere ez da larria izan. Arreta berezia eskaini diegu laborategian eta mantentze-lanetan gertatutako istripuei, dagozkien prebentzio neurriak proposatzeko helburuarekin.

### **12.- Beste jarduera batzuk.**

Maite Fundazioak antolatutako Lab\*s laborategi iraunkorren taldean hartu dugu parte.

## 2.3.- INGURUMEN KUDEAKETA

UPV/EHUko ingurumen kudeaketarako teknikariak aurkeztutako memoria honek UPV/EHUK 2011ko ekitaldian gauzatutako ingurumen kudeaketa deskribatzen du, epigrafe hauetan banatuta:

### AURKIBIDEA

- 1 Hondakinen kudeaketa
- 2 Leioako erraustegiaren itxiera
- 3 Emandako prestakuntza
- 4 Batzorde teknikoetan izandako parte-hartzea
- 5 Obren diseinuan izandako parte-hartzea
- 6 Indarreko legeria betetzeko laguntza
- 7 Hustutako eraikinen txostenak
- 8 Biltzarretan izandako parte-hartzea
- 9 Jasotako prestakuntza

### 1. Hondakinen kudeaketa

- UPV/EHUko hondakin toxikoak eta arriskutsuak kudeatzeko zerbitzuak adjudikatzeko lehiaketa baterako prestatzen lagundu diogu kanpoko enpresa kudeatzaile baimendu bati:
  - ✓ preskripzio teknikoen orria egin dugu, beste unibertsitate batzuetako ingurumen zerbitzuei kontsulta eginda (UAB, UB, UPV).
  - ✓ lizitatzailleek egindako galdera teknikoei erantzun diegu.
  - ✓ txostena egiten duen Batzorde Teknikoan parte hartu dugu, eta enpresa bat proposatu diogu kontratazio mahaiari.
  - ✓ ECOCAT enpresa adjudikaziodunarekin bildu gara, UPV/EHUren eta ECOCATen arteko harremanetarako pertsona gisa (kontratuak irauten duen bitartean), jarduketa irizpideak ezartzeko.
- UPV/EHUko informatika zerbitzuen lankidetzarekin, hondakin toxikoak eta sanitarioak biltzen dituen protokolo bat eskuragarri jartzen duen web bidezko aplikazio bat egin dugu, eta Prebentzio Zerbitzuaren web orrialderako sarbide bat jarri dugu erabiltzaileen esku, bilketa eta/edo ontzi eskaera egin ahal izan dezaten.
- Hondakin toxikoak eta arriskuak biltzeko protokolo eragiketak erraztu ditugu. Horretarako, bi hiletik behingo hondakin toxikoen eta arriskutsuen bilketen egutegi bat zehaztu dugu 2012rako, eta ikastegiekin bilketa eta hornikuntza eskaerak egiteko epe itxiak ezarri ditugu.
- UPV/EHUko hondakin toxikoak eta arriskutsuak kargatzeko lanetarako segurtasun aholkulari bat kontratatuzko preskripzio teknikoen orria egin dugu; izan ere, merkantzia arriskutsuak direnez, figura hori beharrezkoa da.

- UPV/EHUko baimendutako beste instalazio erradioaktibo batzuetatik ateratako hondakin erradioaktiboen bi bilketa kudeatu ditugu.
- Sanmarko mankomunitatearekin batera, Donostiako Eskola Politeknikoaren aurrean edukiontzi bat jartzeko beharrezko kudeaketak egin ditugu, garbiketako langileen lana eta jatorriko birziklapenak errazteko.

## 2. Leioako erraustegiaren itxiera

- Erraustegian erretzen ziren hondakinak zehaztu eta zenbatu ditugu. Eragina jasan dezaketen sailei inkesta bat egin diegu, eta masaren balantzea egin dugu animaliategiko animalien oheen kasuan, oheetarako erositako zerrautsa abiapuntutzat hartuta.
- Hondakin mota bakoitzaren kudeaketaz arduratu gara, kanpoko kudeatzaile baimendu baten bitartez. Kanpoko enpresa kudeatzailea kontratatzeke baldintza teknikoak ezarri ditugu, eta onartzeko dokumentuen izapideak egin ditugu, IKS programaren bidez:
  - ✓ animalien oheak: Cesparen bitartez; azken kudeatzailea Zabalgarbi da.
  - ✓ animalien gorpuak: kudeatzailea Garcia Mendoza S.L. da.
  - ✓ hondakin biosanitarioak: kudeatzailea ELIRECON da.
- Informazio bilkurak egin ditugu erraustegiaren erabiltzaileekin, beren hondakinak kudeatzeko jarraitu behar dituzten protokolo berriak azaltzeko. Bilkura azaroaren 16an egin genuen, eta erraustegia 2011ko abenduaren 15ean itxi zen behin betiko.

## 3. Emandako prestakuntza

- Prebentzio Zerbitzuak prestakuntza ikastaro hauek antolatu ditu, HONDAKINAK KUDEATZEKO PRAKTIKA izenburupean (3 orduko iraupena):

Leioa, martxoaren 17a  
Gasteiz, maiatzaren 5a  
Leioa, maiatzaren 9a  
Donostia, maiatzaren 17a

- ECOCAT enpresak unibertsitateko hondakinak kudeatzeko prestakuntza ikastaroak eman ditu, *World Café* formatuan. Bertan, web bidezko aplikazio berria aurkeztu zuen, hain zuzen ere, hemendik aurrera ikastegiei hondakinak biltzeko eta ontziak eta pegatinak eskuratzeko eskaerak egiteko bide emango diena.

Leioa, azaroaren 6a  
Bilbo, azaroaren 14a  
Donostia, azaroaren 21a  
Gasteiz, azaroaren 28a

- Gasteizko Lascaray Ikerguneko erabiltzaile berrientzako informazio bilkurak egin ditugu, beren ikerketa laborategietako hondakinak kudeatzeko jarraitu beharko duten protokoloa azaltzeko.

#### **4. Batzorde teknikoetan izandako parte-hartzea**

- Leioa-Erandio guneko hiri hondakin solidoak biltzeko eta garraiatzeko zerbitzuak adjudikatzeko lehiaketa egin dugu. CESPADA da adjudikazioduna.
- UPV/EHUko hondakin toxikoak eta arriskutsuak biltzeko, garraiatzeko eta deuseztatzeko zerbitzuak adjudikatzeko lehiaketa egin dugu. ECOCAT da adjudikazioduna.

#### **5. Obren diseinuan izandako parte-hartzea**

- Plentziako PIEko hondakinen biltegia sortu dugu (2011ko azaroa).
- San Mamesko unibertsitate guneko hondakinen biltegia eraikitzeko argibideak sortu ditugu. Beharren memoriari erantzuna eman diogu.

#### **6. Indarreko legeria betetzeko laguntza**

- UPV/EHUren eta jarduera lizentzien izapideak egiteko kontratuaren enpresa adjudikaziodunaren (LIMIA&MARTIN) arteko bilkuretan izan gara, eskatutako ingurumen datuak emateko.
- Hainbat ikastegitako EKOSCAN ziurtagiriaren ezarpena hobetzea helburu duten taldeen bilkuretan egon gara.
- Ikastegi eta zentro hauek ekoizle txikien zerrendan inskribatu ditugu, eta bertako Hondakin Sanitarioen Kudeaketa Plana onartu dugu:
  - ✓ Gasteizko Farmazia Fakultatea
  - ✓ Gasteizko Lascaray Ikergunea
  - ✓ Leioako Zientzia eta Teknologia Fakultatea (eskatuta)
  - ✓ Leioako Erizaintzako Eskola (eskatuta)
- Gipuzkoako Campuseko ingurumenari buruzko web orrialdea osatzen lagundu dugu.
- Gipuzkoako Campuseko kafetegien ingurumenarekiko jokabidearen azterketan parte hartu dugu, jokabide hori hobetzeko asmoz. HAIZEA enpresaren zerbitzuak erabilia egin dugu.
- Prestakuntza ikastaroetan eta, oro har, prestakuntza saio guztietan aurkeztutako informazioa hondakinen eta lurzoru kutsatuen uztailaren 28ko 22/2011 Legea egokitu dugu.

- UPV/EHUko hiru campusetako Segurtasun eta Osasun Batzorde guztietan izan gara, gonbidatu gisa.

## **7. Txostenak**

- Bilboko Ingeniaritza GETeko paperaren eta kartoiaren bilketari buruzko txostena.
- Plentziako PIEko hondakinen biltegiko beharrezko neurrien betetze mailari buruzko txostena.
- Leioa-Erandio guneko errausketa jarduerari buruzko txostena eta errausketa itxi ondorengo egoeraren azterketa (ixteko jarraitu beharreko pausoak eta aurreikusitako gastuak).

## **8. Biltzarretan izandako parte-hartzea**

- “Traunkortasunerako bideak. Eredu berritzaileak” I. Nazioarteko Biltzarra. Bertan “MEJOR GESTIÓN=PREVENCION. Residuos tóxicos y peligrosos de la UPV/EHU” posterra aurkeztu zuten (Bilbo, 2011ko ekainaren 15a, 16a eta 17a).
- “Arrisku psikosozialen ebaluazioa” (Bilbo, 2011ko apirilaren 6a eta 7a).

## **9. Jasotako prestakuntza**

- Hondakinak kudeatzeko dokumentuen izapideak elektronikoki egiteko IKS-eeM-sistema berriaren erabilera (SEMATEC, 2011ko otsailaren 23a).
- Ingurumenaren arloko lege betekizunak (SEMATEC, 2011ko otsailaren 23a).
- Europako EMAS araudia ezartzeko unibertsitate esperientziei buruzko jardunaldia (UPV/EHU, azaroaren 25a).
- Jardunaldi teknikoa: ingurumena administrazio publikoan sartzeko lehen pausoak (IVAP, azaroaren 11).
- Espezie exotiko inbaditzaileen problematika eta kudeaketa administrazioaren esparruan (IVAP, urriaren 27a).



# 3.

# PRESTAKUNTZA

**PESTAKUNTZA ARLOA (Lan eta ingurumen osasuna eta segurtasuna); aldia: hilabetekoa (2011ko urtarrila/2011ko abendua)**

2011ko urtarrila/2011ko abendua IKASTAROAK	HARTZAILE A	IZEN EMATE KOP.	EKINTZA KOPURUA
Sute kasuan izan beharreko jokaera	AZP	50	
Sute kasuan izan beharreko jokaera	Ir./ik.	17	
<b>Sute kasuan izan beharreko jokaera</b>	<b>Guztira</b>	<b>67</b>	<b>9</b>
Erretzeko ohiturari uzteko jarraibideak	AZP	11	
Erretzeko ohiturari uzteko jarraibideak	Ir./ik.	2	
<b>Erretzeko ohiturari uzteko jarraibideak</b>	<b>Guztira</b>	<b>13</b>	<b>8</b>
EKOSCAN: ingurumen kalitatearen ziurtagiria	AZP	32	
EKOSCAN: ingurumen kalitatearen ziurtagiria	Ir./ik.	19	
<b>EKOSCAN: ingurumen kalitatearen ziurtagiria</b>	<b>Guztira</b>	<b>51</b>	<b>3</b>
Luzaketa orokor aktiboa	AZP	51	
Luzaketa orokor aktiboa	Ir./ik.	26	
<b>Luzaketa orokor aktiboa</b>	<b>Guztira</b>	<b>77</b>	<b>5</b>
Drogazaletasunaren inguruko prestakuntza: unibertsitateko ikasle gazteen artean jardunbide osasungarriak sustatzeko unibertsitateko langileen gaitasunak	AZP	15	
Drogazaletasunaren inguruko prestakuntza: unibertsitateko ikasle gazteen artean jardunbide osasungarriak sustatzeko unibertsitateko langileen gaitasunak	Ir./ik.	4	
<b>Drogazaletasunaren inguruko prestakuntza: unibertsitateko ikasle gazteen artean jardunbide osasungarriak sustatzeko unibertsitateko langileen gaitasunak</b>	<b>Guztira</b>	<b>19</b>	<b>12</b>
Suteen aurkako zentralen funtzionamendua	AZP	6	
<b>Suteen aurkako zentralen funtzionamendua</b>	<b>Guztira</b>	<b>6</b>	<b>1</b>
Hondakin toxikoen, arriskutsuen eta sanitarioen kudeaketa	AZP	19	
Hondakin toxikoen, arriskutsuen eta sanitarioen kudeaketa	Ir./ik.	15	
<b>Hondakin toxikoen, arriskutsuen eta sanitarioen kudeaketa</b>	<b>Guztira</b>	<b>34</b>	<b>5</b>
Hondakinen kudeaketa eta segurtasuna (World Café)	AZP	62	
Hondakinen kudeaketa eta segurtasuna (World Café)	Ir./ik.	23	
<b>Hondakinen kudeaketa eta segurtasuna (World Café)</b>	<b>Guztira</b>	<b>85</b>	<b>4</b>
Estresaren kudeaketa	AZP	93	
Estresaren kudeaketa	Ir./ik.	31	
<b>Estresaren kudeaketa</b>	<b>Guztira</b>	<b>124</b>	<b>8</b>
Eztabaida jardunaldia: ingurumena eta iraunkortasuna hezkuntza curriculumetan eta unibertsitateko beste jarduera batzuetan	Ir./ik.	37	
<b>Eztabaida jardunaldia: ingurumena eta iraunkortasuna hezkuntza curriculumetan eta unibertsitateko beste jarduera batzuetan</b>	<b>Guztira</b>	<b>37</b>	<b>1</b>
Autobabeserako planak	AZP	17	
Autobabeserako planak	Ir./ik.	0	
<b>Autobabeserako planak</b>	<b>Guztira</b>	<b>17</b>	<b>4</b>
Lehen sorospenak	AZP	72	
Lehen sorospenak	Ir./ik.	47	
<b>Lehen sorospenak</b>	<b>Guztira</b>	<b>119</b>	<b>16</b>
Arrisku biologikoa	AZP	16	

Arrisku biologikoa	Ir./ik.	24	
<b>Arrisku biologikoa</b>	<b>Guztira</b>	<b>40</b>	<b>4</b>
Arrisku elektrikoa eta mekanikoa	AZP	45	
Arrisku elektrikoa eta mekanikoa	Ir./ik.	9	
<b>Arrisku elektrikoa eta mekanikoa</b>	<b>Guztira</b>	<b>54</b>	<b>4</b>
Arrisku kimikoa: ulertzea, kontrolatzeko eta guztiz babestuta lan egiteko (DIPHOTERINE)	AZP	41	
Arrisku kimikoa: ulertzea, kontrolatzeko eta guztiz babestuta lan egiteko (DIPHOTERINE)	Ir./ik.	58	
<b>Arrisku kimikoa: ulertzea, kontrolatzeko eta guztiz babestuta lan egiteko (DIPHOTERINE)</b>	<b>Guztira</b>	<b>99</b>	<b>3</b>
Laborategietako segurtasuna	AZP	18	
Laborategietako segurtasuna	Ir./ik.	31	
<b>Laborategietako segurtasuna</b>	<b>Guztira</b>	<b>49</b>	<b>4</b>
Datuak ikusteko pantailekin lan egitea. Ergonomia kontzeptuak	AZP	31	
Datuak ikusteko pantailekin lan egitea. Ergonomia kontzeptuak	Ir./ik.	9	
<b>Datuak ikusteko pantailekin lan egitea. Ergonomia kontzeptuak</b>	<b>Guztira</b>	<b>40</b>	<b>4</b>
Ahotsaren erabilera egokia lan esparruan	AZP	69	
Ahotsaren erabilera egokia lan esparruan	Ir./ik.	61	
<b>Ahotsaren erabilera egokia lan esparruan</b>	<b>Guztira</b>	<b>130</b>	<b>8</b>
<b>GUZTIRA</b>		<b>1.061</b>	<b>103</b>
<b>AZPko LANGILEAK GUZTIRA</b>		<b>648</b>	
<b>IRAKASLE ETA IKERTZAILEAK GUZTIRA</b>		<b>413</b>	

Horrez gain, Campusa aldizkariko “Aholkuak” atalean arriskuen prebentzioari buruzko material didaktikoa sartu genuen 2011n. Ondoren, dibulgazio posterrak egin ditugu material horrekin.

Arrisku psikosozialak ebaluatzeko jardunaldiak:

**Evaluación de riesgos psicosociales**

**Lugar:** Bizkaia Aretoa, Av/Abandoibarra 3, Bilbao.

**Días:** 6 y 7 de abril de 2011.

**Organiza:** UPV/EHU

**6 de abril de 2011**

9:30 Presentación **Anais Maseda**  
Viceministra de Responsabilidad Social y Proyección Universitaria  
Presidente del CSS  
UPV/EHU  
**Xabier Aizpuru**  
Gerente de la UPV/EHU

9:45-10:00 La evaluación de riesgos psicosociales en las administraciones públicas **Pilar Collantes**  
Directora de OSPLAN

10:00-11:00 Como abordar la evaluación de riesgos psicosociales: Fases **Xabier San Sebastián**  
Dir. Psicología Social y Metodología de las Ciencias del Comportamiento  
UPV/EHU

11:00-11:30 Puesta **World Café**

11:30-14:00 1º mes: Métodos **Anais Maseda**  
Moderador **Xabier San Sebastián**  
UPV/EHU  
**INBIT**  
**Cristóbal Nogueda**  
Jefe de la Unidad de Ergonomía y Psicocardiología  
INBIT  
**Miguel STAZZI**  
(CoPac)

**7 de abril de 2011**

9:30 2º mes: Ergonomías **Anais Maseda**  
Presentación **Anais Maseda**  
Viceministra de Responsabilidad Social y Proyección Universitaria  
Presidente del CSS  
UPV/EHU  
**Xabier Aizpuru**  
Gerente de la UPV/EHU

9:45-10:30 INBIT, WONT **Rafael Villar Zamora**  
Universidad Jaume I

10:30-11:15 Método STAZZI (CoPac) **Juan María Lario**  
Universidad de Santiago de Compostela

11:15-11:30 Turno de preguntas

11:30-11:45 Puesta **World Café**

11:45-12:45 WORLD CAFÉ Grupos de trabajo **Anais Maseda**  
Viceministra de Responsabilidad Social y Proyección Universitaria  
Presidente del CSS  
UPV/EHU  
**Xabier Aizpuru**  
Gerente de la UPV/EHU

13:00-13:30 Puesta en común de las conclusiones de los grupos de trabajo

13:30-13:45 Conferencia de Cierre **Itzi Gaitza**  
OSPLAN

Inscripción gratuita hasta completar el aforo enviando un correo electrónico a [ispe@ehu.es](mailto:ispe@ehu.es) antes del 1 de abril de 2011 indicando nombre y apellidos, organización a la que pertenece, y teléfono de contacto.

4.

# ERANSKINAK

**EBAZPENA, 2003ko APIRILAREN 7koa, UPV/EHUko ERREKTOREARENA, UPV/EHUren BERAREN PREBENTZIO ZERBITZUA ERATU, ANTOLATU ETA ZERBITZUAREN FUNTZIONAMENDUA ZEHAZTEKO DENA.**

Azaroaren 8ko 31/1995 Legea, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa, indarrean jartzeak aldaketak eragin ditu administrazio publikoetan, lanpostuko arriskuen prebentzioaren bidez langileen osasuna babesteko politiken arloan, hain zuzen ere; izan ere, lege hori laneko araudi ez ezik, funtzionario publikoen estatutueta oinarritzko araudi ere bada.

Azaroaren 8ko 31/1995 Legea garatzeko, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretua, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzekoa, argitaratu zen, eta errege dekretu horretako 14. artikuluan zehaztuta dago 500 langiletik gora dituzten enpresek beren prebentzio zerbitzua eratu behar dutela, eta eratu ez ezik, prebentzioaren arloko jarduerak betetzeko beharrezko diren giza baliabide eta baliabide materialak ere izan beharko dituztela.

Hori guztia kontuan hartuta, langileen ordezkariak kontsulta egin ondoren UPV/EHUko Campus Arteko Laneko Segurtasun eta Osasunerako Batzordearen bidez, 2003ko martxoaren 7an CCOO, CSIF, ELA, LAB, STEE-EILAS eta UGT sindikatueta prebentzioko ordezkariak adostu ondoren eta eman dizkidaten eskumenen babesean, honako hau EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Prebentzio Zerbitzua eratzea.

UPV/EHUren Prebentzio Zerbitzua osatuta dago eta gerenteari atxikita egongo da.

Bigarrena.- Definizioa eta helburua.

UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzua prebentzioaren arloko zeregina betetzeko beharrezko diren giza baliabide eta baliabide materialez osatuta dago, horien bidez unibertsitateko kideei babesa emateko segurtasun eta osasunaren arloan. Zeregin horiei jarraituz, aholku eta laguntza emango diete administrazioari, langileei, horien ordezkariak eta campusetako eta campus arteko laneko segurtasun eta osasun batzordeei.

Hirugarrena.- Jarduera eremua.

Prebentzio Zerbitzuak UPV/EHUko langile guztiei eragiten die.

UPV/EHUko errektoreak eta gerenteak zehaztu eta zainduko dituzte laneko segurtasun eta osasunaren arloko helburuak, unean uneko indarreko araudiari jarraituz.

Laugarrena.- Baliabide materialak eta aurrekontua.

Aurrekontu sail berariazkoak zehaztuko dira programa bakoitzerako, UPV/EHU prebentzio jarduerak abian jarri, egoki bete eta neurri zuzentzaileak ezarri ahal izateko, eta prebentzio jarduerak betetzeko beharrezko instalazio eta baliabide materialak eskuratzeko, betiere, aurrekontuei buruzko araudiari jarraituz.

Bosgarrena.- Antolaketa.

1.- Prebentzio Zerbitzua bi arlotan banatuta egongo da: Osasun Arloa eta Arlo Teknikoa. Zerbitzuan, beraz, alor desberdinetakoak arituko dira, baina elkarlanean arituko beharko dira urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzekoak, 15. artikuluan zehaztutakoari jarraituz.

1.1. Osasun Arlokoen zereginak laneko osasun, ergonomia eta psikosozioologia aplikatuarekin lotutako espezialitateei dagozkienak izango dira. Zeregin horiek betetzeko, eta indarreko araudiari jarraiki,

Oinarrizko Osasun Unitateak (OOU) izango ditu, hau da: UPV/EHUk gaur egun dituen hiru campusetako bakoitzak Oinarrizko Osasun Unitate bat izango du.

Gaur egun UPV/EHUko Osasun Zerbitzuan diharduten mediku eta erizainak Osasun Arloan sartuko dira. Arlo horrek arduradun bat izango du koordinazio lana egiteko.

1.2. Arlo Teknikoan unibertsitateko goi mailako lau tituludun arituko dira: Araba eta Gipuzkoako campusetan tituludun bana eta Bizkaikoan bi. Urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuko VI. kapituluan jasotakoarekin bat, prestakuntza egokia izan beharko dute goi mailako eginkizunak betetzeko prebentzioko berezitasun eta diziplinaren arloan, laneko segurtasunari eta industria higienerari dagokienean, hain zuzen.

UPV/EHUko gaur egungo prebentzioko teknikariak Arlo Teknikoan sartuko dira. Arlo horrek arduradun bat izango du koordinazio lana egiteko.

2.- Prebentzio Zerbitzuak zerbitzuburu bat izango du koordinazio eta gestio lanak egiteko.

3.- Arkitektura eta Obra Zerbitzua elkarlanean arituko da Prebentzio Zerbitzuarekin, batez ere unibertsitateko azpiegiturretan, sarreretan, eraikinen edo instalazioen segurtasunean, ebakuaziorako sistemetan edo antzekoetan neurri zuzentzaileak edo hobekuntzarako bitartekoak ezartzeko edo horien inguruko proposamenak egiteko.

4.- Kontratazio eta Erosketa Zerbitzua elkarlanean arituko da Prebentzio Zerbitzuarekin, indarreko araudia betetzeko beharrezkoak diren ekipamenduak lortzeko, hain zuzen.

5.- Prestakuntzako arduradunak ere elkarlanean arituko dira Prebentzio Zerbitzukoekin laneko arriskuen prebentzioaren arloan beharrezkoak diren prestakuntza planak prestatu eta antolatzeko.

6.- Gerenteak koordinazio lanak eginda, UPV/EHUko beste edozein zerbitzu edo langile (batez ere, irakasle eta ikertzaileak) aritu ahal izango da Prebentzio Zerbitzuarekin lankidetzan aholku emateko eta prestakuntza planak osatu, antolatu eta emateko. Era berean, Prebentzio Zerbitzuarekin elkarlanean aritu ahal izango dira arloan ospea duten beste profesional edo erakunde batzuk ere, aholku edo/eta prestakuntza emateko.

Seigarrena.- Osasun Arloaren eginkizunak.

1.- Osasun Arloaren eginkizunak dira osasuna zaintzeko beharrezkoak diren zereginak betetzea, baita ergonomia eta psikosozioologia aplikatuarekin lotutakoak ere.

UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzuak, osasuna zaintzeari dagokionez, honako hauek izango ditu oinarri: prebentzio zerbitzuen osasun jardueri buruzko araudia (uztailaren 27ko 306/1999 Dekretua; 1999ko abuztuaren 20ko EHAA, 159 zk.) eta ergonomia eta psikosozioologia aplikatuari buruzkoa. Arlo honen eginkizunak, beraz, honako hauek izango dira:

- a) Osasuna zaintzea eta sustatzea: osasun azterketak egitea; osasuna zaintzeko hartutako neurrien bidez eta arriskuen ebaluazioaren ondorioz lortutako emaitzak aztertzea; haurdun dauden edo erditu berri duten emakumeek eta egoera jakin batzuetan aparteko sentikortasuna duten langileek dituzten arriskuen azterketak egitea; lehen laguntzak eta premiazko arreta antolatzea eta ematea.
- b) UPV/EHUko langileen osasunarekin zerikusia duten faktoreen ondorioz eragindako lan hutsegiteak gestionatzea eta kontrolatzea, eta hori horrela egingo da helburu bakarrarekin: gaixotasuna edo laneko hutsegitea eragin duen faktorearen eta lantokiak osasunerako izan dezakeen arriskuaren artean izan daitekeen lotura aztertzea.
- c) Zaintza epidemiologikoa.
- d) Giza harremanak, estresa eta depresioa.

- e) Laneko baldintzak antolatzea, lanpostuen diseinua egitea, esfortzu mugak eta laneko giroa.
- f) Lortutako emaitzak aztertzea.
- g) Agintzen dizkioten antzeko beste eginkizun batzuk, baita indarreko araudian zehaztutakoak ere.

Behar bezalako akreditazioa eta baimena duten zentro espezializatuekin azpikontratatu daitezke zerbitzuko oinarritzko osasun jardueraz gaindiko zenbait jarduera, esaterako, diagnostikorako teknika osagarriak.

Zazpigarrena.- Arlo Teknikoaren eginkizunak.

1.- Arlo Teknikoari honako hauek dagozkio:

- a) UPV/EHUko zentroetako arriskuen ebaluazioa egitea.
- b) Osasun Arloarekin zerikusirik ez duten prebentzio jarduerak planifikatzeaz gain, horretarako beharrezkoak diren programak eta planak egitea.
- c) Istripuak eta ezbeharrak ikertzea, arrazoiak zeintzuk izan diren jakiteko eta, aurrerantzean, horiek saihesteko.
- d) Ikuskaritza lana egitea.
- e) Industriako segurtasun eta higienearen arloko estatistikak egitea.
- f) Jarduera zuzentzaileak proposatzea.
- g) Larrialdietarako planak diseinatzea eta planak egiteko lanak koordinatzea.
- h) Arlo honetako prestakuntzarako proposamenak egitea.
- i) Ikuskaritza teknikoak eta gestiokoak egitea, adibidez: prozeduren kontrola, praktika operatiboak, segurtasuneko arauak, obra berriak.
- j) Indarreko araudiari jarraituz izan ditzakeen beste batzuk.

2.- Arlo Teknikoak laneko segurtasunaren arloan prebentzioarekin eta industria higienearekin zerikusia duten eginkizunak izango ditu, eta zeregin batzuetarako behar bezala akreditatutako edo baimendutako zentro espezializatuak azpikontratatu ahal izango ditu.

Zortzigarrena.- Prebentzio Zerbitzuko buruaren eginkizunak.

1.- Prebentzio Zerbitzuko buruari honako hauek dagozkio:

- a) Prebentzio Zerbitzuko arlo biak koordinatzea eta zuzentzea.
- b) UPV/EHUko osasuna sustatzeko eta laneko arriskuak prebenitzeko beharrezkoak diren jarduerak bultzatzea.
- c) Langileentzako informazio programak eta prestakuntza planak egitea.
- d) Arriskuen ebaluaziorako prozesua zuzentzea.
- e) Neurri zuzentzaileak planifikatzea eta ezartzea, batez ere, UPV/EHUko beste zerbitzu batzuk ere parte hartu behar dutenean.
- f) Prebentzio Zerbitzuan sortuko diren erregistro guztien gestioaren eta zaintzaren ardura izatea.
- g) Laneko arriskuen prebentzioarekin lotuta beharrezkoak diren jarduerak egitea, gerenteak gainbegiratuta.
- h) Prebentzio Zerbitzuaren urteko txostena egitea.
- i) Prebentzioko neurriak ezartzeko lehentasunak zehaztea eta neurri horien eraginkortasuna kontrolatzea.
- j) Prebentziorako eskuliburuak eta prozedurak argitaratzeko eta banatzeko lanak zuzentzea.
- k) Prebentzio Zerbitzuaren web gunea zuzentzea eta gainbegiratzea.

Bederatzigarrena.- UPV/EHUko ikastegien parte-hartzea.

1. UPV/EHUko ikastegietako dekanok eta zuzendariak, administratzaileekin batera, honako zeregin hauek dituzte:

- a) Ikastegian batzorde bat eratzea Prebentzio Zerbitzuarekin lotuta Gerentziak zehaztutako programa eta sistemak ezartzeko, horien bidez laneko segurtasun eta osasunari buruzko xedapenak eta araudia betetzeko.
- b) Ikastegiko langileen kexa, eskaera eta iradokizunak konpontzea. Zailtasun teknikoak edo bestelakoak direla eta hori posible ez bada, Prebentzio Zerbitzuko buruari emango diote guztiaren berri.

2. Ikastegian istripu edo ezbeharren bat dagoenean, administratzaileak berehala jakinaraziko dio Prebentzio Zerbitzuko buruari, eta horrek, era berean, Campuseko Segurtasun eta Osasun Batzordeari emango dio horren guztiaren berri.

Hamargarrena.- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko kultura zabaltzea.

Kontuan izanda zein sakabanatuta dauden eta zein sare nahasia eraten duten UPV/EHUko ikastegiekin, jarduerak antolatuko dira ikastegietako langile batzuekin prebentzioaren arloko oinarritzako prestakuntza izan dezaten, eta prestakuntza hori oinarri hartuta UPV/EHUko gainontzeko langileen artean laneko arriskuen prebentziorako kultura hedatu dezaten.

Hamaikagarrena.- Campuseko errektoreordearen, Ikerketako errektoreordearen, Kalitate Katedrako titularraren, Pertsonaleko gerenteordearen eta campusetako gerenteordeen jarduerak.

Aipatutako errektoreordeek, gerentearekin batera, eta kontuan izanda bakoitzaren eskumenak, laneko segurtasun eta osasunaren arloko eta ingurumenaren arloko baldintzak hobetzeko beharrezkoak diren jarduerak zehaztuko dituzte.

Jarduera horien gestioa campuseko gerenteordearen edo Pertsonalaren gerenteordearen ardura izango da, kontuan izanda bakoitzak dituen eskumenak. Lan hori Prebentzio Zerbitzuko buruarekin elkarlanean egingo dute.

Campuseko gerenteordearen kasuan, aipatutako gestio lana Prebentzio Zerbitzuko buruarekin elkarlanean egiteaz gain, Osasun Arloak eta Arlo Teknikoak campusean dituen kideen laguntza ere izango du.

Kalitate Katedrako titularrak eta campusetako Kalitate Programak Bultzatzeko zuzendariak, beren jardueren esparruan, lehentasuna emango diete UPV/EHUko laneko segurtasuna eta osasuna, eta ingurumena hobetzeko jarduerari.

Alor honetako erabakiak hartzeko eta gestioa egiteko, aipatutako agintariak beren eskumenen arloei dagozkien txostenak eska diezazkioke Prebentzio Zerbitzuko buruari.

Hamabigarrena.- Campuseko eta campus arteko laneko segurtasun eta osasunerako batzordeak.

Prebentzio Zerbitzuko jarduerak campuseko eta campus arteko laneko segurtasun eta osasunerako batzordeekin elkarlanean egin beharko dira. Prebentzio Zerbitzuari erabaki honen bidez eman zaizkion eskumenak ez dira izango aipatutako batzordeek dituzten eskumenen kalterako, eta, edozelan ere, indarreko araudian, Lan Baldintzak Arautzeko Akordioan, Hitzarmen Kolektiboan eta arloko gainerako araudian zehaztutakoa bete beharko dute.

Hamahirugarrena.- Indarrean sartzea.

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Manuel Montero

Errektorea



<b>2012ko plangintza: hilabeteak</b>	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>	<b>6</b>	<b>7</b>	<b>8</b>	<b>9</b>	<b>10</b>	<b>11</b>	<b>12</b>	<b>Arduraduna</b>
<b>Osasunaren zaintza</b>	Gizarte Segurantzako erregimen orokorreko langileen osasun azterketak									MUFACE			PZ
<b>Gripearen aurkako txertaketa</b>									Txertaketa			PZ	
<b>Ergonomia: lanpostuen azterketa</b>	Urte osoan												PZ
<b>Lantokien araberako arriskuen ebaluazioa</b>	2011ko azterketaren entrega martxoan												PZ
<b>Lanpostu espezifikoetako jardueren araberako arriskuen ebaluazioa</b>						Sgiker lanpostuak MT eta TL							PZ
<b>Behin betiko euste ziurtagiriak</b>									C1 C2 C3			PZ	
<b>Desfibrilatzaile erdiautomatikoaren ezarpena ikastegietan</b>									DESAS			PZ	
<b>Autobabeserako planen eguneratzea</b>	Dagozkionak 2011ko orrira sartzea								Planak eguneratzea, 2012ko orriaren arabera			PZ	
<b>Autobabeserako planen ezarpena: simulazioak</b>	Urte osoan												Ikastegiak
<b>Neurketa higienikoak</b>	Urte osoan												PZ
<b>Laneko arriskuen prebentzioaren arloko prestakuntza</b>	Urte osoan, Prestakuntza eta Gestio Hobekuntzarako Gerenteordetzak egindako bi hilez behingo deialdien arabera												PZ /Prestakuntza eta Gestio Hobekuntzarako Gerenteordetza
<b>Laneko arriskuen prebentzioari buruzko online ikastaroaren aurkezpena</b>								Aurkezpena ekainean					PZ / Prestakuntza eta Gestio Hobekuntzarako Gerenteordetza
<b>Hondakinen kudeaketa</b>	Urte osoan												PZ
<b>Arrisku psikosozialen ebaluazioa</b>									Bigarren seihilekoa				PZ
<b>Prebentzioaren kudeaketa sistema</b>	Aurkezpena								Ezarpena				Segurtasun eta Osasun Batzordea
<b>Segurtasun eta Osasun Batzordea eta sailentzako informazioa</b>	Presidentearen deialdien eta eskaera zehatzen arabera												Gizarte Erantzukizun eta Unibertsitate Hedakuntzako Errektoreordetza
<b>Prebentzio Zerbitzuaren 2011ko memoria</b>	Apirilean-maiatzean amaituta												PZ
<b>Barne Ministerioa - CICO - Aitzindarien zerbitzua</b>	Eskatutako												PZ /Sailak

	datuen entrega		
<b>Etika Batzordea</b>	Urte osoan		Ikerketako Errektoreordetza
<b>Jarduera lizentziak</b>	Urte osoan		Campusetako Gerenteordetzak
<b>Zerbitzuen Karta</b>		Aurkezpena ekainean	PZ
<b>ATEX</b>		ATEX	PZ
<b>Kanpoko bitartekoekiko lankidetzak</b>		Suhiltzaileak	Ikastegiak
<b>Prebentzio neurriak gauzatzea</b>			Campusetako Gerenteordetzak
<b>Enpresa jardueren koordinazioa</b>			PZ
<b>Aldizkako kontrolak. Ikuskapenak</b>			PZ
<b>Istripuen eta gorabeheren azterketa</b>			PZ
<b>Segurtasun seinaleak laborategietan eta tailerretan</b>			PZ
<b>Laneko arropa: mantalak</b>			PZ
<b>Amatasunaren babesa</b>			Sailak/ PZ
<b>Banakako babeserako ekipoak</b>			Sailak
<b>Familia medikuekiko, espezialistekiko edo ikuskari medikoekiko harremana ezintasunen edo lanpostu aldaketan kasuan</b>			PZ
<b>Langileen Gerenteordetzarekiko lankidetzak ordutegi berezietan, kasu espezifikoetan, osasun arazoengatik lanpostu aldaketetan, irakasle eta ikertzaileen ordezkapenen kudeaketan eta lizentziak eta baimenak ematean</b>			PZ
<b>Unibertsitate komunitate osoarentzako larrialdietarako arreta medikoa</b>			PZ
<b>Ikastegiko botikinen mantentze-lanak</b>			Ikastegiak
<b>OSALANek eskatutako urteko memoria</b>			PZ
<b>OSALANen ikuskapenetan, ikuskatzaileari behar izan dezakeen guztia ematen zaio</b>			PZ
<b>Bulego materiala erosteko prozesuetako parte-hartzea</b>			Campusetako Gerenteordetzak

